


Año XLVIII. urtea

122 - 2016

Uztaila - Abendua

Julio - diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Etxarrierako hitano-alokutiboa

Jose Luis ERDOZIA

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año XLVIII. urtea - N.º 122. zk. - 2016

Uztaila - abendua / Julio - diciembre

Erroibarko aldaeraren inguruan (3 – Hego Erroibarko azpialdaera. Bigarren erdia) Koldo Artola	245
Etxarrierako hitano-alokutiboa Jose Luis Erdozia	303
An introduction to Basque aspiration: the contribution of onomastics Patxi Salaberri Zaratiegi, Iker Salaberri Izko	365
Urretabizkaiaren eta Sarrionandiaren itzulpen-habitusak Miren Ibarluzea	393
Julian Gaiarrerren euskal gutuna: edizioa eta azterketa Koldo Ulibarri	409
Zozo zuriaren xerka: euskararen optatiboaren historia Manuel Padilla-Moyano	433
Euskarazko erlatiboen diakroniaz: testu zaharren azterketa Dorota Krajewska	463
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales	489

Etxarriako hitano-alokutiboa

Jose Luis ERDOZIA

Euskal filologian doktorea

1. SARRERA

2015eko apirilean uste dut izan zela, Etxarri Aranazko Gaztetxeko zenbait kide etxarrierari buruzko hitzaldia emango ote nien galdetzeraz etorri zitzaizkidanean. Baiezkoa luzatu nien segituan, ilusio handiz gainera, halako proposamen pozgarriak ez baitira egunero suertatzen gurean behintzat. Bi ordu pasako saioa burutu genuen Gaztetxean bertan, etxarrieraren ezaugarri garrantzitsuenak (fonetismoak, morfologia, sintaxia, lexikoa eta esamoldeak) bata bestearen atzetik erakutsirik eta hauek gazteei sortzen zizkieten galdera edo jakinminak asetzen saiatuz. Amaieran, erakutsitako zein atalek sortu zuen jakinminik handiena haiengan galdetuta, hikako tratamendua aipatu zuten ia gazte gehienek. Eta orduan bertan ekin nion artikulu honen nondik norakoak prestatzeari.

Neskak ziren Gaztetxeko hitzaldian gehien gazteen artean eta gazteek orokorrean gutxi erabiltzen badute tratamendu alokutiboa, are gutxiago oraindik erabiltzen dute neska gazteek bereziki eta emakumeek orokorrean ere. Gure haurtzaroan (hirurogei beteak ditugu dagoeneko) barra-barra entzun izan dugu herrian bertako biztanlegoa toka eta noka, bata eta bestea zalantzarik gabe, egoerari zegokiona zegokiola. Eta hitz egiteko era horrek gertutasuna, konfiantza eta kideasuna, haserrea ere bai zenbaitetan, adierazten zuen orduan eta horrelaxe adierazten duela gaur egun ere esango nuke.

Orduetik hona honela komunikatzen jarraitu dugu gazte garaian eta ez horren gaztean ere gizonetzko Etxarrin, baina ez dute gauza bera egin gure adineko emakumeek, eta gazteagoek ere ez. Hizkera naturalagoa iruditzen zait niri neuri betiko lagunekin

komunikatzeko, gure arteko konplizitatearen erakuslea dela ere esanen nuke, ez baitugu horrela jokatzeko lagun baten ezagun bat gure artean dagoenean.

Azken hiru edo lau hamarkadetan, batuaren hedapenarekin batera iruditzen zait, komunikatzeko hikako erak atzera egin du modu nabarmenean, eta ez bakarrik emakumeen artean. Eta atzera egite honekin etxarriera bera eta euskara orokorrean ere, galera garrantzitsua¹ jasaten ari da gure hizkuntzaren osagai garrantzitsua den alor baten erabilera gutxienik. Altxor bat sotoan, ilunpean, inork gozatu gabe, izatearen parekoa.

Atzera egite edo galera hau bera aipatzen zigun Pello Etxanizek (2001: 228): «Euskalki gehienetan beherakada edo galera prozesua gertatu da. Badirudi galera hori erritmo ezberdinean baina urrats jakinetan izan dela. [...] Noka da aurrena galdu den erabilera, eta tokak behin-behineko oreka lortu duela dirudi hainbat eskualdetan, askoz galera mantsoagoa duelarik, zaharrek gazteei eta sexu berekoen artean gehiago mantendu da sexuen (sic) ezberdinen artean baino». Etxanizek Urola eskualdean aztertutako datuen arabera idatzi zuen hau eta Etxarri Aranatzen ere, antzeko zerbait esan dezakegu, azpimarratuz toka bera ere modu nabarmenean ari dela galtzen hiztun gazteen artean bereziki.

2. ZER DA ALOKUTIBOA?

Jose Luis Alvarez Enparantza «Txilardegi» zenak tratamendu etikoa esaten zion hitano-alokutiboari: «Euskal aditz-jokoetan, eta etikoa sortzerakoan, entzulea da aldakuntzen eragilea; mintzatzen ari den pertsonarekiko begiramenduz aldarazten dira adizkiak». (Euskal gramatika: 415)

«NOR, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona markez gainera, ager daiteke aditz multzoan beste pertsona marka bat gehiago. Pertsona marka hau ez dagokio perpauseko ezein sintagmari, hiztunak aurrean duen hizketa lagunari baizik». (Euskaltzaindia, 1987: 387). Horrela definitzen du alokutiboa Euskaltzaindiak *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*. liburuan eta etxarrieran ere, jarraian ikusiko dugun moduan, NOR, NORI eta NORK kasuek adizkietan uzten dituzten markez gain, norekin ari garen hizketan azalduko diguten morfemak ere agertuko zaizkigu horrela egitea erabakitzen dugunean, baina horiek, aldaketa fonetikoak medio, ez dira berberak adizkiaren barnean doazenean.

1 Galera honen garrantzia azpimarratzera dator Jabier Alberdik (1994: 427) hiketaren antzinatasunaz dioena: «Hiketa, gaurko eran nahiz aditz-joko alokutiborik gabe, izango zatekeen tratamendu antzinakoena eta hasiera batean bakarra». Eta autore berak (1996: 124): «Hikako aditz-jokoaren alokutiboaren antzinatasunari dagokionez, Azkuek besterik uste zuen arren, alde batetik, ez dago zalantzarik bere zaharkotasunaz, lehenbiziko testuetatik dokumentaturik dugulako eta halako sistema morfologiko korapilatua goizetik gauera ezin eraiki daitekeelako...».

Etxarrieran, egun, tratamendu alokutiboa bizirik dagoela esan daiteke, baina hala ere, kontuan izan behar da dagoeneko ez direla forma alokutibo guztiak baliatzen, bere erabilera murriztuz joan den heinean forma batzuen desagertzea edo, hobeki esanik, ahaztea ekarri baitu.

Ikus dezagun, dena den, nola burutzen den eta nolako aldaketak jasaten dituen etxarrieran aditzak alokutiboa erabiltzen denean. Erreparatu ondorengo hiru taldeetako esaldiei:

- a) *Gaur mendie FAN GAA ardiyek ikustia.* (Gaur mendira JOAN GARA ardiak ikustera)
Pillota utseta BOTA DAKIT lentxoo. (Pilota uretara BOTA ZAIT lehentxeago)
Azterketa geizki EIN DET. (Azterketa gaizki EGIN DUT)
Biandu ESAN DOOGU launai etxia etortzeko. (Berandu ESAN DIOGU lagunari etxera etortzeko)
- b) *Antton, gaur mendie FAN GEITTUK ardiyek ikustia.* (Antton, gaur mendira JOAN GAITUK ardiak ikustera)
Antton, pillota utseta BOTA ZIKIEK lentxoo. (Antton, Pilota uretara BOTA ZAIDAK lehentxeago)
Antton, azterketa geizki EIN YET². (Antton, azterketa gaizki EGIN DIAT)
Antton, biandu ESAN ZIOBAU³ launai etxia etortzeko. (Antton, berandu ESAN ZIOAGU lagunari etxera etortzeko)
- c) *Josune, gaur mendie FAN GEITTUN ardiyek ikustia.* (Josune, gaur mendira JOAN GAITUN ardiak ikustera)
Josune, pillota utseta BOTA ZIKIEN lentxoo. (Josune, pilota uretara BOTA ZAIDAN lehentxeago)
Josune, azterketa geizki EIN NET⁴. (Josune, azterketa gaizki EGIN DINAT)
Josune, biandu ESAN ZIONAU⁵ launai etxia etortzeko. (Josune, berandu ESAN ZIONAGU etxera etortzeko)

Esaldi talde horietako lehenengoak, a) taldekoak, zutanoko erabilera neutrokoak direla esaten dugu, hau da, NOR, NORI eta NORK sintagmekin (gu, hura-niri, nik-hura eta guk-hari-hura) baino ez dute komunztadurarik erakusten bertako aditzek. Bigarren eta hirugarren taldeetakoak, b) eta c) taldeetakoak, erabilera alokutibokoak direla esaten dugu, NOR, NORI eta NORK sintagmekin komunztadura egiteaz gain, hizketakidearen berri ematen duten morfemak ere bertako adizkietan agertzen direlako: gizonetzko (-K, -YA-, -BA-) hizketakidea b) taldeko esaldietako adizkien kasuan eta emakumezkoa (-N, -ÑA-, -NA-) c) taldeko esaldienean.

2 Ondorengoa da bere bilakabidea: *diat* > *diyat* (/y/ kontsonante igurzkariaren epentesia) > *diyēt* (asimilazio aurrerakaria) > *yet* (afesia).

3 Adizki honetan, aldiz, /b/ kontsonante ezpainkariaren epentesia suertatzen da: *zioagu* > *ziobagu* > *ziobau* (bokal arteko kontsonante herskariaren galera).

4 *Dinat* > *diñat* (bustidura edo palatalizazioa) > *diñet* (asimilazio aurrerakaria) > *ñet* (afesia).

5 *Zionagu* > *zionau* (bokal arteko kontsonante herskariaren galera).

Lehen taldeko esaldiek ‘nor joan den mendira’, ‘pilota nori bota zaion uretara’, ‘azterketa nola egin dudan’ eta ‘lagunari etxera etortzeko berandu esan diogula’ adierazten digute, argitu gabe norekin ari garen hizketan. Beste bi taldeetakoek, aldiz, a) taldekoek emandako informazio guztia eta norekin ari garen hizketan ere esaten digute. Talde bakoitzeko esaldiak, haien ordenaren arabera multzokaturik, adibide moduan hartuz gero, ondorengo zehaztapena egin dezakegu:

- *FAN GAA* (gu, joan)
FAN GEITTUK (gu, joan + hirekin, GIZON, ari nauk hizketan)
FAN GEITTUN (gu, joan + hirekin, EMAKUME, ari naun hizketan)
- *BOTA DAKIT* (hura-niri, bota)
BOTA ZIKIEK (hura-niri, bota + hirekin, GIZON, ari nauk hizketan)
BOTA ZIKIEN (hura-niri, bota + hirekin, EMAKUME, Ari naun hizketan)
- *EIN DET* (nik-hura, egin)
EIN YET (nik-hura, egin + hirekin, GIZON, ari nauk hizketan)
EIN NET (nik-hura, egin + hirekin, EMAKUME, ari naun hizketan)
- *ESAN DOOGU* (guk-hari-hura, esan)
ESAN ZIOBAU (guk-hari-hura, esan + hirekin, GIZON, ari nauk hizketan)
ESAN ZIONAU (guk-hari-hura, esan + hirekin, EMAKUME, ari naun hizketan)

3. ADIZKI ALOKUTIBOEN ERABILERA ETXARRIERAN

3.1. Alokutiboa nola erabili

Etxarrierak alokutiboan baliatzen dituen markak *-k* eta *-n* dira adizkiaren bukaeran doazenean, baina zerbait eransten zaienean, gizonezkoaren marka *-a-* beharrean *-ya-* eta *-ba-* (/y/ eta /b/ kontsonanteen epentesia suertatzen da) bihurtzen da aurretik duen bokalaren arabera, eta ondorengo bilakabideak suertatzen dira:

- $K > -A > -YA - / I _ C :$
dau (du, neutroa) > *dik* (dik, alokutibo oraina) > *zian*⁶ (zian, alokutibo lehena)

Pello, Anttoniok gosaye ekar dau. (Anttoniok gosaria ekarri du) Erregistro neutroa.

Pello, Anttoniok gosaye ekar dik. (Anttoniok gosaria ekarri dik_[du]) Alokutibo oraina.

Pello, Anttoniok gosaye ekar zian atzo. (Anttoniok gosaria ekarri zian_[zuen] atzo) Alokutibo iragana.

6 Ikusten denez, etxarrieran ohikoa den asimilazio aurrerakaria ez da suertatzen adizki alokutibo hauen kasuan, Arbizon bai: *zijen*.

- $K > -A- > -BA- / E,O,U _ C$:
doo (dio, neutroa) > *ziok* (ziok, alokutibo oraina) > *zioban* (zioan, alokutibo lehena)
duuk (dik, hitano oraina) > *zuban* (zian, hitano lehena)
netteke (naiteke, neutroa) > *nettekek* (naitekek, alokutibo oraina) > *nettekeban* (nintekean, alokutibo lehena)

Pello, amak aittai loriat ekar doo. (Amak aitari lore bat ekarri dio) Erregistro neutroa.

Pello, amak aittai loriat ekar ziok. (Amak aitari lore bat ziok_[dio]) Alokutibo oraina.

Pello, amak aittai loriat ekar zioban atzo. (Amak aitari lore bat ekarri zioan_[zion] atzo) Alokutibo iragana.

Pello, atzo yozin orduten etor nettekeban. (Atzo edozein ordutan etor nintekean_[nintekeen]) Alokutibo iragana.

Emakumezkoaren marka *-na-* izaten da kasu guztietan, palatalizaturik (*-ña-*) aurreko silabako /i/ goiko bokala bada, zerbait eransten zaionean:

- $N > -NA- > -ÑA- / I _ C$:
dau (du, neutroa) > *din* (din, alokutibo oraina) > *ziñan* (zinan, alokutibo lehena)

Mirentxu, Anttoniok gosaye ekar dau. (Anttoniok gosaria ekarri du) Erregistro neutroa.

Mirentxu, Anttoniok gosaye ekar din. (Anttoniok gosaria ekarri din_[du]) Alokutibo oraina.

Mirentxu, Anttoniok gosaye ekar ziñan atzo. (Anttoniok gosaria ekarri zinan_[zuen] atzo) Alokutibo iragana.

Mirentxu, nionek yaman niñan semie ospittelía. (Mirentxu, neronek eraman ninan_[nuen] semea ospitalera)

- $N > -NA- / E,O,U _ C$:
doo (dio, neutroa) > *zion* (zion, alokutibo oraina) > *zionan* (zionan, alokutibo lehena)
duuk (din, hitano oraina) > *zunan* (zinan, hitano lehena)
netteke (naiteke neutroa) > *naiteken* (naiteken, alokutibo oraina) > *nettekenan* (nintekean, alokutibo lehena)

Mirentxu, aittek amai ardue ekar doo. (Aitak amari ardoa ekarri dio) Erregistro neutroa.

Mirentxu, aittek amai ardue ekar zion. (Aitak amari ardoa ekarri zion_[dio]) Alokutibo oraina.

Mirentxu, aittek amai ardue ekar zionan atzo. (Aitak amari ekarri zionan_[zion] atzo) Alokutibo iragana.

Mirentxu, atzo yozin orduten etor nettekenan. (Atzo edozein ordutan etor nintekean_[nintekeen]) Alokutibo iragana.

3.2. Sinkretismo zenbait kontu

Morfema, hitz edo adizki batek esanahi bat baino gehiago duenean esaten dugu sinkretismoa dagoela. Adierazle berdina eta adierazia ezberdina, beraz. Euskal aditz laguntzaile arrunteko nor-nork erako *ZAITUZTE* adizkia edo hitanokoa eta alokutibokoa

diren nor-nork eta nor-nori-nork erako *DIAT/DINAT* adizkiak, esate baterako, erabil daitezke sinkretismoa azaltzeko:

Josebak gaur goizean zuek kalean ikusi ZAITUZTE.

Josebak eta Andonik gaur goizean zu ikusi ZAITUZTE.

‘Hark zuek ikusi’ adierazten du lehenak eta ‘haiek zu’, aldiz, bigarrenak adizki berbera, itxuran behintzat, erabilia. Eta itxuran esaten dut, ezen aditz morfema ezberdinak erabiltzen baitira bi esaldi horietan. *Z-* eta *-TE* morfema bakarra (zuek pertsonarena) da lehen esaldian; eta *Z-* (zu pertsonarena) alde batetik eta *-TE* (haiek pertsonarena) bestetik bigarrenean.

Nik hiri _[zuri] *egunero ekartzen* *DIAT* _[dizut] *ogia etxera.*

Nik egunero ikusten *DIAT* _[dut] *hire* _[zure] *kotxea nire etxe aurrean.*

Lehenak ‘nik hiri (gizonezkoa) hura’ ekarri adierazten du (hitanoa, beraz) eta bigarrenak, aldiz, ‘nik hura’ ikusteaz gain, gizonezkoarekin ari naizela hizketan (alokutiboa, beraz).

Eta ez dira gutxi etxarrieran, alokutiboa eta hitanoa erabiltzerakoan gauza bera egiten dutenak. Hona hemen horietako batzuk:

<i>dek / den</i>	<i>Ik gaur piper ein dek.</i> (Hik _[zuk] gaur piper egin duk _[duzu]) (hitanoa) <i>Andoni gaur biandu etor dek.</i> (Andoni gaur berandu etorri duk _[da]) (alokutiboa)
<i>ttuk / ttun</i>	<i>Ik ekar ttun launek.</i> (Hik _[zuk] ekarri ditun _[dituzu] lagunak) (hitanoa) <i>Launek biandu etor ttun.</i> (Lagunak berandu etorri ditun _[dira]) (alokutiboa)
<i>ziok / zion</i>	<i>Aneye etxien ziok.</i> (Anaia etxean zagok _[dago]) (alokutiboa, egon) <i>Aneyek esan ziok etortzeko.</i> (Anaiak esan ziok _[dio] etortzeko) (alokutiboa)
<i>ziek / zien</i>	<i>Biandu etor zien.</i> (Berandu etorri ziren) (neutroa) <i>Mirenek esan zien.</i> (Mirenek esan zidan _[dit]) (alokutiboa) <i>Nun zien erriyontako gaztiek?</i> (Non zauden _[daude] herri honetako gazteak?) (alokutiboa)
<i>yeen</i>	<i>Ik ikus yeen partidue.</i> (Hik _[zuk] ikusi huen _[zenuen] partidua) (hitanoa) <i>Biandu etor yeen etxia.</i> (Berandu etorri zuan/zunan _[zen] etxera) (alokutiboa)

<i>(y)auben⁷</i>	<i>Ez (y)auben ezee aungi ein atzoko azterketan.</i> (Ez huen _[zenuen] ezer ere ongi egin atzoko azterketan) (hitanoa) <i>Atsalde guzie espia ta ez (y)auben azaldu.</i> (Arratsalde guztia espera eta ez zuan/zunan _[zen] azaldu) (alokutiboa)
<i>ittuben</i>	<i>Ik ikus ittuben auntek.</i> (Hik _[zuk] ikusi hituen _[zenituen] ahuntzak) (hitanoa) <i>An yondu ittuben negarres.</i> (Han egon zituan/zitunan _[ziren] negarez) (alokutiboa)
<i>dakik /dakin</i>	<i>Ik aungi asko dakin.</i> (Hik _[zuk] ongi asko dakin _[daki zu]) (hitanoa) <i>Iri eroi dakin libuube.</i> (Hiri _[zuri] erori zain _[zaizu] liburua) (hitanoa)
<i>nittuban / nittunan</i>	<i>Biandu allaatu nittuban etxia atzo.</i> (Berandu ailegatu ninduan _[mintzen] etxera atzo) (alokutiboa) <i>Ondartzan ikus nittunan guziek.</i> (Hondartzan ikusi nitinan _[nituen] guztiak) (alokutiboa)

4. ADITZ LAGUNTZAILE ALOKUTIBOA

Hemendik aurrera, artikuluaen gorputz edo enborra islatuko da, hau da, etxarrierak baliatzen dituen adizki alokutiboak tauletan paraturik agertuko dira, eta taula horien ondoren aipatu adizkiak etxarrierako esaldietan kokatuta, hauen testuingurua zein den hobeki antzemateko. Honetaz gain, parentesi artean, etxarrierako esaldiaren batuko ordaina ere agertuko da, eta taket edo kortxete artean, adizki alokutiboaren ondoren, hizki txikiagoz, erabilera neutrokoa ere bai. Esaldien bereizketa (erabilera neutroa eta alokutiboa) modu zehatz eta osoagoan burutzeko, hitanoko adizkiak eta izenordainak ere moldaturik (taket artean) agertuko dira batuko ordaina jasotzen duen parentesi arteko esaldian.

Taula horiek burutzeko (etxarrierako adizkiak, batukoak...), kontuan izan ditut hitanoa aurretik aztertu duten hainbat autoreren lanak, hala nola Iñaki Gaminde (1984), Jose Luis Erdozia (2001), Gontzal Fontaneda (2007), Ritxi Lizartza (2009) eta Jon Urruxulegi (2009). Eta modu sistematikoan erabili dut etxarrierako egungo datuekin konparatzeko Pedro Yrizarren 1992ko lana. Azkenik, zenbait alditan, *Sakanako hiztegi dialektologikoa* (Erdozia, 2004) liburutik esaldiak hartu ditut adizki alokutiboen erabileraren adibide gisa.

7 Hasieran kontsonante igurzkaria daramala edo ez daramala, bi modutara entzun daiteke etxarrieran.

4.1. Indikatiboa

4.1.1. Nor era

4.1.1.1. Hitanoa

1. taula. Hitanoa nor orain eta lehen.

	Orain	Batua	Lehen	Batua
<i>bi</i>	<i>yeiz</i> ⁸	haiz	(y)itzen ⁹	hintzen

*Biandu allatu yeiz*¹⁰ *goizien partidua*. (Berandu ailegatu haiz _[zara] goizean partidura)
Eyeiz nolanei isilduko, lertuko baa dee! (Ez haiz _[zara] nolana isilduko, lehertuko bada ere!)

Noiz etor yitzen oportetati? (Noiz etorri hintzen _[zinen] oportetatik?)

Eitzen agertu illundu artio atzo. (Ez hintzen _[zinen] agertu ilundu arteo atzo)

Beleixe quartu itzen biandu zala sube eitten asteko. (Berehalaxe ohartu hintzen _[zinen] berandu zela sua egiten hasteko)

*Dauneko etor yeiz, mutikua! Ez itzen*¹¹, *ba, guatzeti botako!* (Dagoeneko etorri haiz _[zara] mutikoa! Ez hintzen _[zinen], bada, ohatzetik botako!)

Orain aldiari, orokorrean, esan daiteke /h/ kontsonantearen lekukotasuna adierazten duen /y/ kontsonante igurzkaria erabiltzen dela. Iraganean, aldiari, hasierako kontsonantearen erabilera hautazkoa dela esan daiteke, bi modutara entzun baitaitezke etxarriarren ahoetan.

Sandhia buruturik ere erabiltzen dira, baina horrelakoetan hasierako kontsonante igurzkaria desagertu egiten da gehienetan:

Allatueiz azkeniako etxia nun yondu yeizen iyore quartu bee. (Ailegatu haiz _[zara] azkenean etxera non egon haizen _[zaren] inor ere ohartu gabe)

Eitzen quartu ondo-onduen yakala lengusube. (Ez hintzen _[zinen] ohartu ondo-ondoan heukala _[zeneukala] lehengusua)

Errie faten beiz, ekar zazkik pastel batzuk. (Herrira joaten bahaiz _[bazara], ekar itzak _[itzazu] pastel batzuk)

Dena dela, batzuetan, hasieran kontsonantea daramala ere entzun daiteke zenbaitetan:

8 Yrizarrek forma honetaz gain *eiz* eta *aiz* formak ere jaso zituen.

9 Yrizarrek hasierako kontsonante igurzkaririk gabe jaso zituen: *iitzen*, *intzen*.

10 Sandhia buruturik, hasierako kontsonante igurzkaria galtzen du: *allatueiz* (ailegatu haiz).

11 ... *eitzen*... ere, sandhia buruturik, entzun daiteke.

Garaiz etortzen bayaiz, afaye prestatzen asiko geittuk. (Garaiz etortzen bahaiz _[bazarar], afaria prestatzen hasiko gaituk _[gara])

Bestalde, aipatu behar da nor erako aditz laguntzailearen kasuan, hi izenordainarekin komuntadura egiten duen adizkiak ez duela markatzen hizketakidearen sexua, hau da, forma bera erabiltzen dela gizonezkoarekin eta emakumezkoarekin hitz egiten ari garenean.

Josune, atzo biandu etor (y)itzen. (Josune, atzo berandu etorri hintzen _[zinen])
Antton, atzo biandu etor (y)itzen.

4.1.1.2. Alokutiboa

2. taula. Alokutiboa nor orain eta lehen.

Nor	Orain			Lehen		
	Neutroa	Alokutiboa	Batua	Neutroa	Alokutiboa	Batua
<i>ni</i>	naiz	<i>nok</i> ¹² <i>non</i>	nauk naun	nintzen	<i>nittuban</i> ¹³ <i>nittunan</i>	ninduan nindunan
<i>hura</i>	da	<i>dek</i> ¹⁴ <i>den</i>	duk dun	zen	<i>(y)auben</i> ¹⁵ <i>(y)aunen</i>	zuan zunan
<i>gu</i>	gara	<i>geittuk</i> ¹⁶ <i>geittun</i>	gaituk gaitun	ginen	<i>giñuban</i> ¹⁷ <i>giñunan</i>	gintuan gintunan
<i>haiek</i>	dira	<i>ttuk</i> ¹⁸ <i>ttun</i>	dituk ditun	ziren	<i>ittuben</i> ¹⁹ <i>ittunen</i>	zituan zitunan

12 /au/ à /o/ monoptongazioa suertatu da. Horrela (*nok / non*) jaso zituen Yrizarrek ere *Morfologia del verbo auxiliar guipuzcoano* liburuan eta informatzaile moduan egile bera, Luis Mari Igartua eta Iñaki Gaminde azaltzen ditu. Aipatzekoa Igartuaren eta Yrizarren informatzaileak bi anaia izatea, gure osabak Ambrosio (1985) eta Angel (1976) Erdozia Beltza, lehena Etxarri Aranatzen Igartuarekin ibilitakoa eta, bigarrena, Madrilén Yrizarrekin.

13 Yrizarrek *nittubaan, nittu(b)aan, nittuben, nittunaan* jaso zituen, hurrenez hurren ondorengo informatzaileei hartuak: Yrizar, Igartua, Fernandino (Jose Fernandino, 1975)-Gaminde, Yrizar-Igartua. Hemen agertzen den hirugarren adizkia (*nittuben*) ez da alokutiboa, nor-nork erako objektu pluraleko lehen pertsona singularreko adizkia (*nituen*) baizik.

14 Horrelaxe ere bai Yrizarrek.

15 Hauekin batera *yeen* nor-nork erako formak ere entzun daitezke. Hasierako kontsonante igurzaria ere, batzuetan desager daiteke. Yrizarrek *auben, au(b)en* eta *yeen* jaso zituen.

16 Etxarriaren ohikoa den diptongo itxiera, /ai/ à /ei/, suertatu da: *bai > bei, jai > jei, ere bai > debei...* Eta kontsonante itxirik gabe ere, *gettuk/n*, entzun daiteke. Yrizarrek bi modutara jaso zuen: *geittuk/n, gettuk/gettun*.

17 Yrizarrek nor-nork erako formak (guk-haiek) jaso zituen: *giñuzkiyan/giñuzkiñan*. Eta forma hauek nor erako lehen aldiak eta hemen aipatu dudak besteak, nor-nork eran, jaso ditu. Hemen nik jasotakoak, aldiz, nor-nori-nork aditzaren taulan jaso zituen berak: guk-hiri-hura.

18 Forma aferesidunak ohikoak dira etxarriaren nor-nork erako aditz laguntzailean: *ttut* (ditut), *ttugu* (ditugu), *ttubie* (dituzte)... Horrela jaso zituen Yrizarrek ere.

19 Yrizarrek *ittuben* eta *ittuban* jaso zituen.

Ikusi ondorengo hiru esaldiok:

Anton/Josune, eneiz garais allaatu ta denak fan DIE. (Ez NAIZ garaiz ailegatu eta denak joan DIRA)

Antton, enok garais allaatu ta denak fan TTUK. (Ez NAUK garaiz ailegatu eta denak joan DITUK)

Josune, enon garais allaatu ta denak fan TTUN. (Ez NAUN garaiz ailegatu eta denak joan DITUN)

Lehen esaldian aditzaren erabilera neutroa dugu, hots, berdin da norekin ari garen hizketan. Edozeinekin erabil dezakegu. Bigarrenean, aldiz, aditzaren erabilera alokutiboa dugu, hau da, aditzak berak markatzen du gizezko batekin ari garela hizketan: *enok* (ez nauk) eta *ttuk* (dituk). Hirugarrenean emakumea da gure hizketakidea eta *enon* (ez naun) eta *ttun* (ditun) dira, orduan, erabili beharreko aditz laguntzaileak. Horrela beraz, adizkian pertsona arruntez gain, hizketakidea nor den ere kontuan izaten da.

Hona hemen, jarraian, eta horrela agertuko dira hemendik aurrera adizkien taula bakoitzaren ondoren, taulako adizkiak esaldietan paraturik, haien erabilerari behar bezala erreparatzeko:

Ola segitzen badek, laster aittuko ttuk patrifiliyuek! (Horrela segitzen baduk_[baduzu] laster adituko dituk_[dituzu] patrifilioak!)

Ez giñuban elizen yon ezkontzan ta arreba erabat asarratu yauben. (Ez gintuan_[ginen] elizan egon ezkontzan eta arreba erabat haserretu zuan_[zen])

Alakuatien denak agertu ittuben eta guu aldekuiek ixil-ixilik gelditu. (Halako batean denak agertu zituan_[ziren] eta gure aldekoak isil-isilik gelditu)

Eskerrak zuei kaso ein eta garais etor nittunan, geñakuen... (Eskerrak zuei kasu egin eta garaiz etorri nindunan_[nintzen], gainerakoan...)

An ez (y)auben iyore gelditu eta geyenak etxia fan ittuben. (Han ez zuan/zunan_[zen] inor ere gelditu eta gehienak etxera joan zituan_[ziren])

Ori esatie ez ten iguela, geñakuen ez giñunan emen eztabaidan yonen! (Hori esatea ez dun_[da] berdina, gainerakoan ez gintunan_[ginen] hemen eztabaidan egonen!)

Aittu ttun sekule ezkillak aman etxien lotan yondu yeizenien? (Aditu ditun_[dituzu] sekula ezkilak amaren etxean lotan egon haizenean_[zarenean]?)

Nei dekenien fanen geittuk, beste eittekoik ez balin baakan. (Nahi duanean_[duzunean] joanen gaituk_[gara], beste egitekorik ez baldin badaukan_[badaukazu])

Yozin egunetan agertuko non beixe, zuek gutxiyen espia dezubienien. (Edozein egunetan agertuko naun_[naiz] berriz ere, zuek gutxien espera duzunean)

Iguel dek ordenadorioi arriken botatzen badek, irautuik ziok ta! (Igual duk_[da] ordenadore hori harrika botatzen baduk_[baduzu], iragoturik zagok_[dago] eta!)

4.1.2. *Nor-nori era (orain / lehen)*²⁰

4.1.2.1. Hitanoa

3. taula. Hitanoa nor-nori orain eta lehen.

	Orain			Lehen		
	Hura	Haiek	Batua	Hura	Haiek	Batua
<i>hiri</i>	<i>dakik</i> ²¹ <i>dakin</i>	<i>dazkik</i> <i>dazkin</i>	zaik/zaizkik zain/zaizkin	<i>zakiyan</i> ²² <i>zakiñan</i>	<i>zazkiyan</i> <i>zazkiñan</i>	zitzaian/zitzaizkian zitzainan/zitzaizkinan
	Ni	Gu	Batua	Ni	Gu	Batua
<i>hiri</i>	<i>nakik</i> <i>nakin</i>	<i>gazkik</i> <i>gazkin</i>	natzaik/gatzaizkik natzainan/gatzaizkinan	<i>nakiyan</i> <i>nakiñan</i>	<i>gazkiyan</i> <i>gazkiñan</i>	nintzaian/gintzaizkian nintzainan/gintzaizkinan
	Niri	Hari	Batua	Niri	Hari	Batua
<i>hi</i>	<i>yakit</i>	<i>yakiyo</i>	hatzait/hatzaio	<i>yakiten</i>	<i>yakiyon</i>	hintzaidan/hintzaion
	Guri	Haiei	Batua	Guri	Haiei	Batua
	<i>yakigu</i>	<i>yakiyobie</i>	hatzaigu/hatzaie	<i>yakigun</i>	<i>yakiyobien</i>	hintzaigun/hintzaien

Lentxo etor dazkik aurrek «Pazkuen amores» eske. (Lehentxeago etorri zaizkik ^[zaizkizu] haurrak «Pazkoaren amorez» eske)

Otsuen modue fan zakiñan aldemena etxia. (Otsuaren modura joan zitzainan ^[zitzaizun] aldamena etxera)

I, neiko ibil yakiyobien izurretzen fan zan urtien ta guai utz zazkik bakien. (Hi ^[zu], nahiko ibili hintzaian ^[zintzaizkien] izorratzen joan zen urtean eta orain utz itzak ^[itzazu] bakean)

Enienela geyo kasoik eiñen? Ikuskuen²³ faten banakin! (Ez didanala ^[didazula] gehiago kasurik eginen? Ikusiko dun ^[duzu] joaten banatzain ^[banatzaizu]!)

I, biyer goizien gertuetuko yakigu meza beño len? (Hi ^[zu], bihar goizean gerturatuko hatzaigu ^[zatzaizkigu] meza baino lehen?)

Eskerrak fan yakiyobien, geñakuen eztikiyau ze gertatuko zan. (Eskerrak joan hatzaian ^[zatzaizkien], gainerakoan ez zakiguk ^[dakigu] zer gertatuko zen)

Guai dala bi urte, astero faten gazkiñan bisiten. (Orain dela bi urte, astero joaten gintzaizkinan ^[gintzaizkizun] bisitan)

Garaiz etortzen bagazkik, utziko duuguk elkartien sartzen? (Garaiz etortzen bagatzaizkik ^[bagatzaizkizu], utziko diguk ^[diguzu] elkartean sartzen?)

20 Yizarrek soilik nor hirugarren pertsonarekin jaso zuen.

21 Yizarrek horrela eta *dakin* ere jaso zuen.22 Forma hauek eta objektu pluralekoak, bokal irekia geminaturik edo luzaturik ere entzun daiteke. Yizarrek *zakiyaan/zazkiyaan, zakiñaan/zazkiñaan* eta *zakiyan* jaso zituen.23 *Ikus(i)ko den* ere bai etxarriaran.

4.1.2.2. Alokutiboa

4. taula. Alokutiboa nor (hura-haiek) – nori orain eta lehen.

Nori	Orain		Lehen	
	Hura (haiek)	Batua	Hura (haiek)	Batua
<i>niri</i>	<i>zi(z)kiek</i> ²⁴ <i>zi(z)kien</i>	<i>zai(zki)dak</i> <i>zai(zki)dan</i>	<i>zi(z)kieban</i> ²⁵ <i>zi(z)kienan</i>	<i>zitzai(zki)daan</i> <i>zitzai(zki)danan</i>
<i>hari</i>	<i>zi(z)kiyok</i> ²⁶ <i>zi(z)kiyon</i>	<i>zai(zki)ok</i> <i>zai(zki)on</i>	<i>zi(z)kiyoban</i> ²⁷ <i>zi(z)kiyonan</i>	<i>zitzai(zki)oan</i> <i>zitzai(zki)onan</i>
<i>guri</i>	<i>zi(z)kieguk</i> ²⁸ <i>zi(z)kiegun</i>	<i>zai(zki)guk</i> <i>zai(zki)gun</i>	<i>zi(z)kieguban</i> ²⁹ <i>zi(z)kiegunan</i>	<i>zitzai(zki)guan</i> <i>zitzai(zki)gunan</i>
<i>haiei</i>	<i>zi(z)kiyobiek/zi(z)kiyobe</i> ³⁰ <i>zi(z)kiyobien/zi(z)kiyone</i>	<i>zai(zki)ek</i> <i>zai(zki)en</i>	<i>zi(z)kiyobabien</i> ³¹ <i>zi(z)kiyonabien</i>	<i>zitzai(zki)ean</i> <i>zitzai(zki)enan</i>

Garraxike etor zizkiegun goizien. (Garrasika etorri zaizkigun _[zaizkigu] goizean)
Ez zikiyobabien ezee gertatu istripuben. (Ez zitzaiean _[zitzaiean] ezer ere gertatu istripuan)
Aungi iruittu zizkienan ik esandakuek. (Ongi iruditu zitzaizkidanan _[zitzaidan] hik _[zuk] es-
 andakoak)
Ez zikiiek ezee gertatu. (Ez zaidak _[zait] ezer ere gertatu)
Launek garais agertu zizkiyon. (Lagunak garaiz agertu zaizkion _[zaizkio])
Amiñe il zikiyobiek/zikiyobe. (Amiña hil zaiek _[zaie])
Atzo loteye tokatu zikiegunan. (Atzo loteria tokatu zitzaiguan _[zitzaigun])
Lentxoo etor zikien atzoko istripube kontatzia. (Lehentxeago etorri zaidan _[zait] atzoko
 istripua kontatzera)
Eniken seguro esanen bia zala, beye bee fale otsak aitzie iruittu zikien! (Ez niken _[nuker]
 seguru esanen bera zela, baina bere joare hotsak aditzea iruditu zaidan _[zait]!)

5. taula. Alokutiboa nor (lehen pertsonak) - nori (hirugarren pertsonak) orain.

	Orain			
	Ni	Batua	Gu	Batua
<i>hari</i>	<i>nakiyok/nikiyok</i> <i>nakiyon/nikiyon</i>	<i>natzaio</i> <i>natzaion</i>	<i>gazkiyok/gizkiyok</i> <i>gazkiyon/gizkiyon</i>	<i>gatzai</i> <i>gatzai</i>
<i>haiei</i>	<i>nakiyobiek/nikiyobiek</i> <i>nakiyobien/nikiyobien</i>	<i>natzaiek</i> <i>natzaien</i>	<i>gazkiyobiek/gizkiyobiek</i> <i>gazkiyobien/gizkiyobien</i>	<i>gatzai</i> <i>gatzai</i>

24 Yrizarrek adizki hauek eta *zikiet*.25 Yrizarrek *zikebaan*, *zikeban*, *zikeban*, *zikiënaan* eta *zikiñan*.26 Yrizarrek horrela eta *zikion* ere bai.

27 Yrizarrek bokal irekia geminaturik.

28 Yrizarrek *zikigun* ere bai.29 Yrizarrek *zkiegubaan*, *zkiegunaan* eta *zikuban*.30 Yrizarrek *zikiyobe* eta *zikiyone*.

31 Horrelaxe ere Yrizarrek.

Bi eratara (lehen silabako bokal irekiarekin zein itxiarekin) erabiltzen da, zalantzarik gabe. Hala ere, maiztasunari erreparatuz gero, lehen silabako kontsonante itxiarekin gehixeago entzuten zela duela urte batzuk esanen nuke. Bokal irekiarekin burutzeak ez du harridurarik sortu behar, ezen gauza jakina baita etxarrierak, nafarreran nahiko ohikoa den moduan, lehen aldiko burutzapenetan horrela egiten duela: *naallen* (nenbilen), *zaallen* (zebilen), *zakiyon* (zitzaion), *zakiten* (zitzaidan)... Adizki hauetako lehen bien kasuan ere, kontsonante geminatua irekia zein itxia izan daiteke³²: *naallen/niillen*, *zaallen/ziillen*...

Bai gizona, bai, ni egunio etortzen nakiyok/nikiyok bisiten! (Bai gizona, bai, ni egunero etortzen natzaio_[natzaio] bisitan!)

Festetan, urtero faten gazkiyobien/gizkiyobien etxia bazkaltzia. (Festetan, urtero joaten gatzai_[gatzai] etxera bazkaltzera)

Izutuko ttun gertuetzen banakiyobien/banikiyobien! (Izutuko ditun_[dira] gerturatzen banatzaie_[banatzaie])

Ostielero faten gazkiyon/gizkiyon amai titiye artzia. (Ostiralero joaten gatzai_[gatzai] amari titia hartzera)

Aittune izketan asten danien, denok ago txulua beire gelditzen gazkiyok! (Aitona hizketan hasten denean, denok aho zulora begira gelditzen gatzai_[gatzai]kiok¹⁾)

6. taula. Alokutiboa nor (lehen pertsonak) - nori (hirugarren pertsonak) lehen.

Lehen				
	Ni	Batua	Gu	Batua
<i>hari</i>	<i>nikiyoban</i> <i>nikiyonan</i>	nintzaioan nintzaionan	<i>gizkiyoban</i> <i>gizkiyonan</i>	gintzaizkioan gintzaizkionan
<i>haiei</i>	<i>nikiyobabien</i> <i>nikiyonabien</i>	nintzaiean nintzaianan	<i>gizkiyobabien</i> <i>gizkiyonabien</i>	gintzaizkiean gintzaizkienan

Aizan, Joxepa, atzo fan nikiyonan etxiaño eta ez yauben bia azaldu! (Adi ezan_[ezazu], Joxepa, atzo joan nintzaionan_[nintzaion] etxeraino eta ez zunan_[zen] bera azaldu)

Gogo txarrien etor gizkiyoban launtzia. (Gogo txarrean etorri gintzaizkioan_[gintzaizkion] laguntzera)

Ez nikiyonabien gertuetu, baezpede. (Ez nintzaiean_[nintzaiean] gerturatu, badaezpada ere)

Beleixe allaatu gizkiyobabien, bizikleta aldatu giñubenien. (Berehalaxe ailegatu gintzaizkiean_[gintzaizkien], bizikleta aldatu genuenean)

32 Hauxe bere bilakabidea bi kasutan: *nabilen* (nenbilen) > *naillen* (bokal arteko kontsonante ezpainkaria erori) > *naallen* ($V_1V_2 > V_1V_1$) edo > *niillen* ($V_1V_2 > V_2V_2$).

4.1.3. Nor-nork era (orain / lehen)

4.1.3.1. Hitanoa

7. taula. Hitanoa nor {1. eta 3. pertsona} - nork, orain eta lehen.

	Orain			Lehen		
	Hura	Haiek	Batua	Hura	Haiek	Batua
<i>hik</i>	<i>dek</i> ³³ <i>den</i>	<i>ttuk</i> ³⁴ <i>ttun</i>	duk/dituk dun/ditun	<i>yeen</i> (<i>yauben</i>) ³⁵ <i>ñeen</i>	<i>ittuben</i> ³⁶ <i>ittunen</i>	huen / hituen
	Ni	Gu	Batua	Ni	Gu	Batua
<i>hik</i>	<i>niek</i> ³⁷ <i>nien</i>	<i>geittuk</i> ³⁸ <i>geittun</i>	nauk/gaituk naun/gaitun	<i>nieban</i> ³⁹ <i>nienan</i>	<i>geittuban</i> ⁴⁰ <i>geittunan</i>	ninduan/gintuan nindunan/gintunan

Ondorengo esaldietan asteriskoz markaturik dauden adizkiak, berez nor-nori-nork sailekoak dira, baina horrela erabiltzen dira egun oraindik etxarrieran.

Noiz ikes ber dek sube bier bezela eitten? (Noiz ikasi behar duk _[duzu] sua behar bezala egiten?)

Ik yakus berko ttun kartak jakittek nok iraaaz deen. (Hik _[zuk] erakutsi beharko ditun _[dituzu] kartak jakittek nork irabazi duen)

Atzoko frituek ik ein ittuben? (Atzoko fritoak hik _[zuk] egin hituen _[zenituen]?)

Ikus ittunen atzo kurrilubek? (Ikusi hituen _[zenituen] atzo kurriloak?)

Aungi asko ikus yeen / yauben gixetxar orren jokaldiye! (Ongi asko ikusi huen _[zenuen] gizatxar horren jokaldia!)

Egunio ekartzen geittuk ik mezaa! (Egunero ekartzen gaituk _[gaituzu] hik _[zuk] mezara)

*Ik ez *nien sekula santan oporretaa yaman iyuare.* (Hik _[zuk] ez naun _[nauzu] sekula santan oporretara eraman inora ere)

Ik gu beti ikusten geittuban iturriyen pertza utses betetzen. (Hik _[zuk] gu beti ikusten gintuan _[gintuzun] iturrian pertza urez betetzen)

*Ez *nienan ikusi goizeko ordu txikiten etxia allatzen.* (Ez nindunan _[minduzun] ikusi goizeko ordu txikietan etxera ailegaten)

33 Yrizarrek hauek eta *yen* iraganeko adizkia orain aldian.

34 Horrelaxe Yrizarrek ere.

35 Bi adizkiak erabiltzen dira eta Yrizarrek emakumezkoari lotutakoa *auen* eta *iñen* jaso zituen, baina galdera ikurrarekin biak hala biak.

36 Yrizarrek hauxe soilik jaso zuen gizona koendako eta emakumezkoendako.

37 Nor-nori-nork erako forma da berez, baina nor-nork eran ere erabiltzen da etxarrieran.

38 Ambrosio Erdoziak, Yrizarren informatzailetako bat, lehenago horrela erabiltzen zirela nor-nork erako formak esan zigun eta gaur egun ere, entzun daitezke zenbaitetan.

39 Aurrekoan bezalaxe. Ikus 3.1.4.7. puntua eta adizki berberak agertzen dira nor-nori-nork atalean. Yrizarrek *niebaan*, *nienan* eta *auben* jaso zituen.40 Yrizarrek *auen* eta *iñen*, baina biak galdera ikurrarekin.

Amiñan etxia faten beiz, an ikusko ttun artaporkak txintziliken! (Amiñaren etxera joaten bahaiz _[bazara], han ikusiko ditun _[dituzu] arto-porkak zintzilik!)

Amiñan etxia faten beiz, an ikusko den⁴¹ izugarrisko argiporka txintziliken! (Amiñaren etxera joaten bahaiz _[bazara], han ikusiko dun _[duzu] izugarrizko argi-porka zintzilik!)

Zenbait sandhi ere suertatzen da nor-nork erako adizkietan eta hautazkoa da bere erabilera:

Aditza + behar + dek/den à aditza + biek/bien

Biyer goizien ekar bien aurre. (Bihar goizean ekarri behar dun _[duzu] haurra)

Biyer goizien ekar ber den aurre.

Guai yaman biek esnie. (Orain eraman behar duk _[duzu] esnea)

Guai yaman ber dek esnie.

Egun, nor bigarren pertsona singularra, hi, denean NN_iN_k erako aditz formak baliatzen ditu etxarrierak: *dubet/dunet* (haut), *dubau/dunau* (haugu), *duuk/duun* (hau), *duubiek/duubien* (haute), *nuban/nunan* (hindudan), *genuban/genunan* (hindugun), *zuban/zunan* (hinduen), *zubabien/zunabien* (hinduten). Hala ere, badira maiz erabiltzen ziren zenbait esaldi zeintzuetan NN_k erako adizkiak agertzen diren, guztietan sandhia buruturik:

Horrexegatik, berez, ondorengoak beharko lirateke izan nor bigarren pertsona singularrarekin eratutako adizkiak NN_k eran:

8. taula. Hitanoa nork {1. eta 3. pertsona} - nork, orain eta lehen.

	Orain			Lehen		
	Nik	Guk	Batua	Nik	Guk	Batua
<i>hi</i>	<i>(y)aut⁴²</i>	<i>(y)augu</i>	haut / haugu	<i>(y)auten</i>	<i>(y)augun</i>	hindudan / hindugun
	Hark	Haiek	Batua	Hark	Haiek	Batua
<i>hi</i>	<i>(y)au⁴³</i>	<i>(y)aubie</i>	hau / haute	<i>(y)aun</i>	<i>(y)aubien</i>	hinduen / hinduten

Hasierako kontsonante igurzkaria adizkia solte doanean erabiltzen da soilik.

41 Sandhia buruturik ere entzuten da: *ikuskuen*.

42 Yrizarrek *duubet*, *duunet*, *aut* eta *dubat*. Hirugarrena ez beste hirurak NN_iN_k erakoak dira.

43 Yrizarrek *duuk*, *duun* eta *au*.

Jotzen baut pantzan fanen yeiz dantzan, jotzen baut zillen sekule ez yeiz illen! (Jotzen bahaut _[zaitut] pantzan joanen haiz _[zara] dantzan, jotzen bahaut _[zaitut] zilan sekula ez haiz _[zara] hilen!) (Etxarriko esaera zaharra)

Laster arrapatukua! (Laster harrapatuko haut _[zaitut]!)
Artukuaubie basuen lan eitteko? (Hartuko haute _[zaituzte] basoan lan egiteko?)
Jakinda nee aneye yeizela askos ee errezoo artuko yaubien! (Jakinda nire anaia haizela _[zarela] askoz ere errazago hartuko hinduten _[zintuzten]!)

4.1.3.2. Alokutiboa

Nor lehen pertsona denean nor-nori-nork erako adizkiak erabiltzen dira sinkretismoa suertatuz. 4.1.4.4. eta 4.1.4.8. puntuetan ageri dira jasoak aditz era honetako adizkiak.

Bestalde, ondorengo adizkien taulan ikus daitekeen moduan, objektu plurala (haiek) denean, subjektua hirugarren pertsona denean (hark eta haiek) *-k* eta *-n* morfemak baliatzen dira adizkiaren amaieran eta lehen pertsonen (nik eta guk) kasuan, aldiz, etxarrieran *-a-* eta *-na-* morfemen ordain diren *-be-/ba-* eta *-ne-/na-*, batuko alokutiboan gertatzen den moduan. Objektu singularra denean, berriz, ez da gauza bera gertatzen: *-k/-n* baliatzen da soilik subjektua singularreko hirugarren pertsona denean eta *-a/-na-* morfemen ordain diren *-ye/-ñe(-)* gainerakoetan.

9. taula. Alokutiboa nor {3. pertsona} - nork, orain.

Orain				
Nork	Hura	Batua	Haiek	Batua
<i>nik</i>	<i>yet</i> ⁴⁴ <i>ñet</i>	<i>diat</i> <i>dinat</i>	<i>zittubet</i> <i>zittunet</i>	<i>ditiat</i> <i>ditinat</i>
<i>hark</i>	<i>dik</i> ⁴⁵ <i>din</i>	<i>dik</i> <i>din</i>	<i>zittuk</i> <i>zittun</i>	<i>ditik</i> <i>ditin</i>
<i>guk</i>	<i>yau</i> ⁴⁶ <i>ñau</i>	<i>diagu</i> <i>dinagu</i>	<i>zittubau</i> <i>zittunau</i>	<i>ditiagu</i> <i>ditinagu</i>
<i>haiek</i>	<i>ye</i> ⁴⁷ <i>ñe</i>	<i>ditek</i> <i>diten</i>	<i>zittubiek/zittube</i> ⁴⁸ <i>zittubien/zittune</i>	<i>ditiztek</i> <i>ditizten</i>

44 Yrizarrek *diyat* ere jaso zuen Gaminde iturritako harturik. Ondorengoa izan da bere bilakabidea: *diat* > *diyat* (/y/ kontsonante epentetiko) > *diyēt* (asimilazio aurrerakaria) > *yet* (aferesia). *dinat* > *diñat* (palatalizazioa) > *diñet* (asimilazio aurrerakaria) > *ñet* (aferesia).

45 Yrizarrek horrela eta *dek* ere bai.

46 Yrizarrek *diau/dieu*, *diñau/diñeu*. Egun erabiltzen diren adizkien bilakabidea ondorengoa da: *diagu* > *diyagu* (epentesia) > *diyau* (bokal arteko heskariaren galera) > *yau* (aferesia); *dinagu* > *diñagu* (palatalizazioa) > *diñau* (bokal arteko heskariaren galera) > *ñau* (aferesia).

47 Yrizarrek *ye*, *diye*, *ie*, *die*, *ñe* eta *diñe*.

48 Bi modutara erabiltzen da. Hizketakide emakumezkoa adierazten duen lehen forma nor-nork erako erabilera neutrokoa (haiek-haiek lehen) ere izan daiteke: *zittubien* (zituzten). Yrizarrek bigarren aukera baliatzen du bi kasuetan.

Nik ez yet eze ekarri, gios aik ekar berko zittubiek bier ttugun mateyeliel! (Nik ez diat [dut] ezer ere ekarri, geroz haiek ekarri beharko ditiztek [dituzte] behar ditugun materia-leak!)

Laster ikusko zittube laun guziek gartzelien. (Laster ikusiko ditiztek [dituzte] lagun guztiak kartzelan)

Eñe eze ekesko ola, gauz guziek guk eitten zittunau ta! (Ez ditzen [dute] ezer ere ikasiko horrela, gauza guztiak guk egiten ditinagu [ditugu] eta!)

Ekar zittune/zittubien ardiyek menditti? Geñakuen beste zerbeit erabai berko ñau. (Ekarri ditizten [dituzte] ardiak menditik? Gainerakoan beste zerbeit erabaki beharko dinagu [dugu])

Guk ez yau olakoik esan! Biak konpondu berko dik arazue! (Guk ez diagu [dugu] horrelakorik esan! Berak konpondu beharko dik [du] arazoa)

Eñe nei izan ber etortzie ez pazarie aldatzen. (Ez ditzen [dute] nahi izan behar etortzea ez bazarete aldatzen)

Beyetz esan dik, beye ez zittuk bier bezela eiñen, ez apuretu. (Baietz esan dik [du], baina ez ditik [ditu] behar bezala eginen, ez apuratu)

Guaño olakoik! Eñet nik illebaik ezautuko. (Oraino horrelakorik! Ez dinat [dut] nik ilobarik ezagutuko)

Noiznei ikusten zittubau olako ontuek Beko Basuen. (Noiznahi ikusten ditiagu [ditugu] horrelako onddoak Beheko Basoan)

Ala ziek Ameiketan okelak ezin jasos, pertzekue besteik eye jaten da! (Hala zeudek [daude] Ameriketetan okelak ezin jasoz, pertzekoa besterik ez ditek [dute] jaten eta!)

10. taula. Alokutiboa, nor (3. pertsona) - nork, lehen.

Lehen				
Nork	Hura	Batua	Haiek ⁴⁹	Batua
<i>nik</i>	<i>niyan</i> ⁵⁰ <i>niñan</i>	nian ninan	<i>nittuban/nizkiyan</i> <i>nittunan/nizkiñan</i>	nitian/nitinan
<i>hark</i>	<i>ziyan</i> <i>ziñan</i>	zian zinan	<i>zittuban/zizkiyan</i> <i>zittunan/zizkiñan</i>	zitian/zitinan
<i>guk</i>	<i>giñuban</i> <i>giñunan</i>	genian geninan	<i>giñittuban/giñuzkiyan</i> ⁵¹ <i>giñittunan/giñuzkiñan</i>	genitian genitinan
<i>haiek</i>	<i>ziyabien</i> ⁵² <i>ziñabien</i>	ziaten zinaten	<i>zittubabien/zizkiyabien</i> <i>zittunabien/zizkiñabien</i>	zitiaten zitinaten

49 Ikusten denez, bi forma ezberdin (plural egile ezberdinarekin: -it- / -zki-) baliatzen ditu etxarrierak pertsona bakoitzean. Hala ere, -zki- morfemaduna $N\bar{N}_iN_k$ eran ere erabiltzen da: nizkian à *nizkiyan*.

Yrizarrek -it- pluralgiledunak soilik jaso zituen, pluraleko lehen pertsonaren kasuan izan ezik.

50 Yrizarrek horrela eta *nian* zein *nunan*.

51 Yrizarrek bigarren aukerak, -zki- pluralgiledunak, baliatzen ditu bi kasuetan.

52 Yrizarrek *ziyen* eta *ziñien* jaso zituen, egun Arbizun erabiltzen diren formak.

Ikusten denez, bi pluralgile (-it- eta -zki-) erabiltzeko aukera ematen du objektu pluralarekin.

Nik eniyan ezee ekarri, biak ekar zittuban (zizkiyan) mateyele guziek! (Nik ez nian_[nuen] ezer ere ekarri, berak ekarri zitian_[zituen] materiale guztiak!)
Ez ziñabien ezee esan! (Ez zinaten_[zuten] ezer ere esan!)
Ez giñuzkiyan ikusi Iruñen! (Ez genitian_[genituen] ikusi Iruñean!)
Mendi puntaa allaatzekuen ikus giñittuban. (Mendi puntara ailegatzekoan ikusi genitian_[genituen])
Bazittubabien goguek zuek ikusteko. (Bazitiaten_[zituzien] gogoak zuek ikusteko)
Dena aittu ta ale dee ez ziñan ezee esan. (Dena aditu eta hala ere ez zinan_[zuen] ezer ere esan)
Ez nittuban egun guzien Nafarroa Oñezen ikusi. (Ez nitian_[nituen] egun guztian Nafarroa Oinezen ikusi)

Bestelako pertsonekin, indikatiboko beste gainerako kasu gehienetan gertatzen den moduan, nor-nori-nork erako adizkiak erabiltzen dira eta artikularen 2.2. puntuan genioen moduan sinkretismo kasuak suertatzen dira:

Atzo kalien ikus zieban gitarra jotzen eta erabat lotsatuik gelditu yauben. (Atzo kalean ikusi nindian_[ninduen] gitarra jotzen eta erabat lotsaturik gelditu zuan_[zen])
Atzo libuube ekar zieban leitzeko, beye nik ez niyan zabaldu dee ein. (Atzo liburua ekarri zidaan_[zidan] irakurtzeko, baina nik ez nian_[nuen] zabaldu ere egin)
Besotan goxo-goxo artu ta yaman zien guatziaño. (Besoetan goxo-goxo hartu eta eraman nain_[nau] ohatzeraino)
Eskuben libuube yaman zien guatziaño. (Eskuan liburua eraman zidan_[diti] ohatzeraino)
li kotxe berriyen yaman nieban amiñe ikustia ospittelia. (Hire kotxe berrian eraman nindian_[ninduzun] amiña ikustera ospitalera)
Ik nai libuube yos nieban nee urtebetetzien. (Hik_[zuk] niri liburu berria erosi hidan_[zenidan] nire urtebetetzean)
Elkarteti atia ta etxeko atayen utzi ziegunan atzo gaubien. (Elkartetik atera eta etxeko atarian utzi gintunan_[gintuzun] atzo gauean)
Diru dexente eman ziegunan semien ezkontza bier bezela prestatzeko. (Diru dezente eman zigunan_[zigun] semearen ezkontza behar bezala prestatzeko)

4.1.4. Nor-nori-nork era (orain / lehen)

4.1.4.1. Hitanoa: orain

11. taula. Hitanoa nor-nori {3.pertsona} - nork, orain.

	Hura	Haiek	Batua
<i>hik hari</i>	<i>dook</i> ⁵³ <i>doon</i>	<i>doozkiyok</i> ⁵⁴ / <i>dootzak</i> <i>doozkiyon</i> / <i>dootzan</i>	diok / dizkiok dion / dizkion
<i>hik haiei</i>	<i>doobiek</i> ⁵⁵ <i>doobien</i>	<i>doozkiyobiek</i> ⁵⁶ / <i>dootzabiek</i> <i>doozkiyobien</i> / <i>dootzabien</i>	diek/dizkiek dien/dizkien

Nor-nori-nork erako hitanoko eta alokutiboko adizkien kasuan ere, bi pluralgile (-zki- eta -tza-) erabiltzeko aukera dago, kasu guztietan ez bada ere.

Noiz ekar doozkiyon / dootzan txurruak amai? (Noiz ekarri dizkion _[dizkiozu] txurroak amari?)

Ik yaman dook azkeniako kotxie garajia. (Hik eraman diok _[diozu] azkenerako kotxea garajera)

Eta ez toon ezee esan? Ez toozkiyon, ez, bestiatu alakuek barkatuko! (Eta ez dion _[diozu] ezer ere esan? Ez dizkion _[dizkiozu] ez, beste bati halakoak barkatuko!)

Ezetz esan da yos doozkiyok/ dootzak, alee de, azkenien potokeyek. (Ezetz esan eta erosi dizkiok _[dizkiozu] hala ere, azkenean potokeriak)

Lentxoo eman doobiek giltze etxien sartzeko. (Lehentxeago eman diek _[diezu] giltza etxean sartzeko)

Yaniaun eman yoozkiyobien / yootzabien alubiyek iyendiako. (Herenegun eman hizkien _[zenizkien] babarrunak iganderako)

Yon ari lasei, ezin doozkiyobien arazo guziek konpondu. (Egon hadi _[zaitez] lasai, ezin dizkien _[dizkiezu] arazo guztiak konpondu)

Noi banatu dootzabien aurtengo loteiko zenbakiyek? (Nori banatu dizkien _[dizkiezu] aurtengo loteriako zenbakiak?)

Ik eman doobien laseitasun pixkat ii guresuei ezken urtioiten. (Hik _[zue] eman dien _[diezu] lasaitasun pixka bat hire _[zure] gurasoei azken urte hauetan)

53 Yrizarrek ere horrela jaso zituen objektu singularren eta pluralaren kasuan.

54 Horrela Yrizarrek ere.

55 Yrizarrek ez ditu bereizten nor singularra eta plurala: bi kasuetan *doók/doón*.

56 Aurreko oharrean bezala: *doozkiyok, doozkiyon*.

12. taula. Hitanoa nor-nori {hiri} - nork, orain.

Nork	Hura	Batua	Haiek	Batua
<i>nik</i>	<i>dubet</i> ⁵⁷ <i>dunet</i>	diat dinat	<i>duuzkiyet</i> ⁵⁸ <i>duuzkiñet</i>	dizkiat dizkinat
<i>hark</i>	<i>duuk</i> <i>duun</i>	dik din	<i>duuzkik</i> <i>duuzkin</i>	dizkik dizkin
<i>guk</i>	<i>dubau</i> ⁵⁹ <i>dunau</i>	diagu dinagu	<i>duuzkiyau</i> ⁶⁰ <i>duuzkiñau</i>	dizkiagu dizkinagu
<i>haiek</i>	<i>duubiek</i> ⁶¹ <i>duubien</i>	diate dinate	<i>duuzkibiek</i> ⁶² <i>duuzkibien</i>	dizkiate dizkinate

Emendi aurria ez dunet ezee geyoo esanen ola jartzen beziz. (Hemendik aurrera ez dinat [dizut] ezer ere gehiago esanen horrela jartzen bahaiz [bazara])
Aurten Erregiek ez tuubien gauz aundiik ekarko. (Aurten Erregeek ez dinat [dizute] gauza handirik ekarriko)
Amak garbittuko duuzkik beti bezela arropak ik ez badek ikesten. (Amak garbituko dizkik [dizkizu] beti bezela arropak hik [zuk] ez baduk [baduzu] ikasten)
Guk yamanen duuzkiñau trastiek etxia. (Guk eramanen dizkinagu [dizkizugu] trasteak etxera)
Ekarko dubau egurre txikitzen asteko? (Ekarriko diagu [dizugu] egurra txikitzen has-teko?)
Ezpeiz belexe ixiltzen, lepageñekuat emanen dubet! (Ez bahaiz [bazara] berehalaxe isil-tzen, lepagaineko bat emanen diat [dizut]!)
Eztuubiek/eztuube iye kasoik ein goiz guzien. (Ez diate [dizute] ia kasurik egin goiz guztian)
Biyer bertan ekarko duuzkiñau falta dazkiñen libuubek. (Bihar bertan ekarriko dizkin-agu [dizkizugu] falta zaizkinan [zaizkizun] liburuak)
Guaño eztuuzkibiek ekarri falta dazkiken aziyek? (Oraindik ez dizkiate [dizkizute] ekarri falta zaizkian [zaizkizun] haziak?)
Biyer ekarko duuzkiñet arropa guziek. (Bihar ekarriko dizkinat [dizkizut] arropa guztiak)

57 *dubat/dunat* ere erabiltzen da. Yrizarrek *duubet*, *dubet*, *dubat* eta *duunet* erabiltzen ditu.58 Yrizarrek hauek eta *duuzkibet*.59 Yrizarrek *duubau/duunau* eta *dakik/dakin* jaso zituen.60 Yrizarrek galdera ikurrarekin *duuzkibau* eta *duuzkiñau*.61 *duube/duune* ere entzun daitezke. Yrizarrek azken hauek baliatu zituen.62 *Duuzkiye/duuzkile* ere entzun daitezke. Yrizarrek bi hauek eta *duuzkibiek* jaso zituen.

4.1.4.2. Alokutiboa

13. taula. Alokutiboa nor-nori {3.pertsona singular} - nork, orain.

Orain				
Nork	Hura	Batua	Haiek	Batua
<i>nik</i>	<i>ziobet</i> ⁶³ <i>zionet</i>	zioat zionat	<i>zizkiyobet</i> ⁶⁴ (<i>ziotzabet</i>) <i>zizkiyonet</i> (<i>ziotzanet</i>)	zizkioat zizkionat
<i>hark</i>	<i>ziok</i> ⁶⁵ <i>zion</i>	ziok zion	<i>zizkiyok</i> (<i>ziotzak</i>) <i>zizkiyon</i> (<i>ziotzan</i>)	zizkiok zizkion
<i>guk</i>	<i>ziobau</i> <i>zionau</i>	zioagu zionagu	<i>zizkiyobau</i> (<i>ziotzabau</i>) <i>zizkiyonau</i> (<i>ziotzanau</i>)	zizkioagu zizkionagu
<i>haiek</i>	<i>ziobe</i> <i>zione</i>	ziotek zioten	<i>zizkiyobe</i> (<i>ziotzabe</i>) <i>zizkiyone</i> (<i>ziotzane</i>)	zizkioatek zizkioaten

Hitanoaren kasuan bezala pluraleko bi morfema (-zki- eta -tza-) baliatzeko aukera dago alokutiboan ere.

Askotan esan zionau, beye alperrik! (Askotan esan zionagu _[diogu], baina alferrik!)

Makiñaat aldiz laundu zioet, beye... (Makina bat aldiz lagundu zioat _[diot], baina...)

Iyun dienak esan zizkiyobe/ziotzabe! (Inon direnak esan zizkioatek _[dizkiote]!)

Ekar zizkiyonau/ziotzanau nei zittubenak. (Ekarri zizkionagu _[dizkiogu] nahi zituenak)

Anbruxiok ekarri zioak bier zeen libuube. (Anbruxiok ekarri zioak _[dio] behar zuen liburua)

An utzi zizkiyok/ziotzak, lurrien botata, aizkora guziek. (Han utzi zizkiok _[dizkiok] lurrean botata, aizkora guztiak)

Ez zizkiyonet/ziotzanet beixee utziko ta kitto! (Ez zizkionat _[dizkiot] berriz ere utziko eta kito!)

14. taula. Alokutiboa nor-nori {3.pertsona plural} - nork, orain.

Nork	Hura	Batua	Haiek	Batua
<i>nik</i>	<i>ziobabiet</i> ⁶⁶ <i>zionabiet</i>	zieat zienat	<i>zizkiyobabiet</i> <i>zizkiyonabiet</i>	zizkieat zizkienat
<i>hark</i>	<i>ziobiek</i> ⁶⁷ <i>zibien</i>	ziek zien	<i>zizkiyobiek</i> <i>zizkiyobien</i>	zizkiek zizkien
<i>guk</i>	<i>ziobiebau</i> <i>zibienau</i>	zieagu zienagu	<i>zizkiyobiebau</i> <i>zizkiyobienau</i>	zizkieagu zizkienagu
<i>haiek</i>	<i>ziobiek</i> ⁶⁸ <i>zionien</i>	zietek zieten	<i>zizkiyobiek</i> ⁶⁹ <i>zizkiyobien</i>	zizkioate zizkionate

63 Hauek eta *ziobat* ere bai Yrizarrek.64 Yrizarrek lehen formak jaso zituen kasu batean izan ezik: (hark-hari-haiek) *zizkiyok/ziotzak*, *zizkiyon*.

65 Hauek eta hurrengoak Yrizarrek ere horrela.

66 Horrela eta objektu singularreko formak jaso zituen Yrizarrek.

67 Yrizarrek zehar osagarri singularrarekin bezala.

68 Sinkretismoa suertatzen da, ikusten denez, bi adizkien artean: hark-haiei-hura eta haiek-haiei-hura.

69 Sinkretismo kasu bera objektu plurala dutenean.

Mille aldis esan ziohabiet ez eitteko kasoik. (Mila aldiz esan zieat_[dietet] ez egiteko kasurik)
Semie beti eman zizkiyobienau opariyek Gaubonetan. (Semeei beti eman zizkienagu_[dizkiegu] opariak Gabonetan)
Zuen launei ez ziobien ezee esan biandu etortzietis. (Zuen lagunei ez zieten_[diete] ezer ere esan berandu etortzeagatik)
I amai ez ziobien diruik eskatu elizen bandeja pasatzekuen. (Hire_[zure] amari ez zioten_[diote] dirurik eskatu elizan bandeja pasatzerakoan)
Esan ziobiebau ez etortzeko geyoo eskubek utsik dazkabiela. (Esan zieagu_[diegu] ez etortzeko gehiago eskuak hutsik dauzkatela)
Lepageñeko galantak eman zizkiyobiek aittek meezi bee. (Lepagaineko galantak eman zizkiek_[dizkie] aitak merezi gabe)

4.1.4.3. Hitanoa

15. taula. Hitanoa nor-nori {1.pertsona} - nork, orain.

	Niri			Guri		
	Hura	Haiek	Batua	Hura	Haiek	Batua
<i>hik</i>	<i>niek</i> ⁷⁰ <i>nien</i>	<i>nizkiek</i> <i>nizkien</i>	didak/dizkidak didan/dizkidan	<i>giek</i> ⁷¹ <i>gien</i>	<i>gizkiek</i> ⁷² <i>gizkien</i>	diguk/dizkiguk digun/dizkigun

Ago ixilik, ik nai esan ber niek Indurainek ez teela sekule Tourre irraazi! (Hago_[zaude] isilik, hik_[zuk] niri esan behar didak_[didazu] Indurainek ez duela Tourra sekula irabazi!)
Ez nizkien sekule egun onak ematen ni beño len jaitzen yeizenien. (Ez dizkidak_[dizkidazu] sekula egun onak ematen ni baino lehen jagiten haizenean_[zarenean])
Ik yosi gizkiek afaireko turrunek. (Hik_[zuk] erosi dizkiguk_[dizkigu] afarirako turroiak)
Arrazoi bikeñe eman giek geyoo ez agertzeko. (Arrazoi bikaina eman diguk_[diguzu] gehiago ez agertzeko)
*Enien*⁷³ *beixee esan ber ze ein ber deten denok pozik yoteko.* (Ez didan_[didazu] berriz ere esan behar zer egin behar dudan denok pozik egoteko)

70 Yrizarrek gauza bera.

71 Gaur egun ez da entzuten eta bere ordeaz nor-nork erako nork hirugarren pertsonarekin burutzen da: *Hik eman dek guteko.* (Hik eman duk guretzat). Objektu pluralarekin, aldiz, entzun daiteke oraindik. Yrizarrek ere gauza bera jaso zuen: *giek/dek, gien/den.*
 Yrizarrek horrela eta *gieguk/giegun, dek/den.*

72 Yrizarrek *gizkie(gu)k/gizkie(gu)n* eta *ttuk/ttun.*

73 *Ez nien...* ere erabiltzen da.

4.1.4.4. Alokutiboa

16. taula. Alokutiboa nor-nori {1.pertsona} - nork, orain.

	Niri	Batua	Guri	Batua
<i>hark-hura</i>	<i>ziek</i> ⁷⁴ <i>zien</i>	zidak zidan	<i>zieguk</i> <i>ziegun</i>	ziguk zigun
<i>hark-haiek</i>	<i>zizkiek</i> <i>zizkien</i>	zizkidak zizkidan	<i>zizkieguk</i> <i>zizkiegun</i>	zizkiguk zizkigun
<i>haiek-hura</i>	<i>ziebiek/ziebe</i> ⁷⁵ <i>ziebien/ziene</i>	zidatek zidaten	<i>ziegubiek/ziegube</i> <i>ziegubien/ziegune</i>	zigutek ziguten
<i>haiek-haiek</i>	<i>zizkiebiek/zizkiebe</i> <i>zizkiebien/ zizkiene</i>	zizkidatek zizkidan	<i>zizkiegubiek</i> ⁷⁶ / <i>zizkiegube</i> <i>zizkiegubien/zizkiegune</i>	zizkigutek zizkiguten

Etxeko arrontza guziek ekarri zizkieguk amiñek. (Etxeko arrautze guztiak ekarri zizkiguk _[dizkigu] aminak)

Gorentziyek eman zizkiebiek iteko erriyen. (Goraintziak eman zizkidatek _[dizkidate] hire-tako _[zuretako] herrian)

Ustes launek bezela fan ta denetati esan ziegubien. (Ustez lagunak bezala joan eta denetatik esan ziguten _[digute])

Amak ekar ziek gosaye guatzia ta ogi apur bet dee eyet utzi. (Amak ekarri zidak _[dit] gosaria ohatzera eta ogi apur bat ere ez diat _[du] utzi)

Aittek beti dakan guzie eman ziegun bia ezee bee geldittuta. (Aitak beti daukan guztia eman zigun _[digu] bera ezer ere gabe geldituta)

Donostiko lengusubek ekar zizkiegubiek angulek Gaubonetako. (Donostiako lehengusuek ekarri zizkigutek _[dizkigute] angulak Gabonetarako)

Aunbeste paatu ta pertzekue besteik ez ziegubien eman ostatubortan! (Hainbeste pagatu eta pertzekoa besterik ez ziguten _[digute] eman ostatu horretan!)

Launek yaman ziebe/ziebiek txakurre albatteyangana. (Lagunek eraman zidatek _[didate] txakurra albatariarengana)

Goizien zuen guresuek ekar ziegune/ziegubien gosaye denoi. (Goizean zuen gurasoek ekarri ziguten gosaria _[digute] denoi)

74 Yrizarrek *ziak* ere bai.75 Yrizarrek bigarren aukera lau kasuetan eta *zizkiebek* ere bai.76 Yrizarrek *zizkiegubek* ? (sic), *zizkieguben* ? (sic).

4.1.4.5. Hitanoa: lehen

17. taula. Hitanoa nor-nori {3.pertsona} - nork, lehen.

	Hura	Haiek	Batua
<i>hik hari</i>	<i>yoon</i>	<i>yoozkiyon/yootzan</i> ⁷⁷	hion/hizkion
<i>hik haiei</i>	<i>yobien</i> ⁷⁸	<i>yoozkiyobien/yootzabien</i>	hien/hizkien

Ik eman yoon amai berri txarra aneyek istripube uraittu zenien. (Hik _[zuk] eman hion _[zenion] amari berri txarra anaiak istripua eduki zuenean)

Ekar yoozkiyon / yootzan porrubek aneyai tripotak eitteko? (Ekarri hizkion _[zenizkion] porruak anaiari odolkiak egiteko?)

Atzo goizien ikus yoozkiyon / yootzan txerrikumiek jayoik urdiei. (Atzo goizien ikusi hizkion _[zenizkion] txerrikumeak jaiorik urdeari)

Eztikiyet zeengati esan yobien ez etortzeko etxie ikustia. (Ez zekiat _[dakit] zerengatik esan hien _[zenien] ez etortzeko etxea ikustera)

Noiz ekar yoozkiyobien / yootzabien pirrixke berriyek? (Noiz ekarri hizkien _[zenizkien] txirringa berriak?)

18. taula. Hitanoa, nor - nori (hiri) - nork, lehen.

Nork	Hura	Batua	Haiek	Batua
<i>nik</i>	<i>nuban nunan</i>	nian ninan	<i>nuzkiyan nuzkiñan</i>	nizkian nizkinan
<i>hark</i>	<i>zuban zunan</i>	zian zinan	<i>zuzkiyan zuzkiñan</i>	zizkian zizkinan
<i>guk</i>	<i>genuban genunan</i>	genian geninan	<i>genuzkiyan genuzkiñan</i>	genizkian genizkinan
<i>haiek</i>	<i>zubabien zunabien</i>	ziaten zinateen	<i>zuzkiyabien zuzkiñabien</i>	zizkiateen zizkinateen

Nik yaman nuzkiñan denborapasak ospittelia. (Nik eraman nizkinan _[nizkizun] denborapasak ospitalera)

Ez genuban eze esan asarratuko yitzela pensatzen giñubelako. (Ez genian _[genizun] ezer ere esan haserretuko hintzela _[zinele] pentsatzen genuelako)

Pariseño fan ez zunan opari trisiat dee ekarri. (Pariseraino joan eta ez zinan _[zizun] opari triste bat ere ekarri)

Eskopeta punte berokiyan azpitti agiyen ikus nuban. (Eskupeta punta berokiaren azpitik agerian ikusi nian _[nizun])

77 Yrizarrek bi kasuetan bigarren aukera.

78 Yrizarren nori singularra eta plurala bereizi gabe *yoon* jaso zuen. Pluralaren kasuan *yen* ere jaso zuen.

Nok demontre esan zuban ez etortzeko afaltzia? (Nork demontre esan zian _[zizun] ez etortzeko afaltzera?)

Biak yaman zuzkiyan aurrek ikastola atzo goizien. (Berak eraman zizkian _[zizkizun] haurrak ikastolara goizean)

Biandu allatu yitzen ta ez zubabien ezee utzi atzoko auzatien. (Berandu ailegatu hintzen _[zinen] eta ez ziaten _[zizuten] ezer ere utzi atzoko auzatean)

4.1.4.6. Alokutiboa: lehen

19. taula. Alokutiboa nor-nori {hari} - nork, lehen.

Nork	Hura	Batua	Haiek	Batua
<i>nik</i>	<i>nioban</i> ⁷⁹ <i>nionan</i>	nioan nionan	<i>nizkiyoban</i> ⁸⁰ / <i>niotzaban</i> <i>nizkiyongan</i> / <i>niotzanan</i>	nizkioan nizkionan
<i>hark</i>	<i>zioban</i> <i>zionan</i>	zioan zionan	<i>zizkiyoban</i> ⁸¹ / <i>ziotzaban</i> <i>zizkiyongan</i> / <i>ziotzanan</i>	zizkioan zizkionan
<i>guk</i>	<i>genoban</i> ⁸² <i>genonan</i>	genioan genionan	<i>genozkiyoban</i> ⁸³ / <i>genotzaban</i> <i>genozkiyongan</i> / <i>genotzanan</i>	genizkioan genizkionan
<i>haiek</i>	<i>ziobabien</i> <i>zionabien</i>	zioaten zionaten	<i>zizkiyobabien</i> ⁸⁴ / <i>ziotzababien</i> <i>zizkiyonabien</i> / <i>ziotzanabien</i>	zizkioaten zizkionaten

Yaniaun eman genoban aginaldue fan zan urteko partes. (Herenegun eman genioan _[genion] aginaldoa joan zen urteko partez)

Ez zizkiyobabien libubek bueltatu ta andi aurria ez zittuban geyo ikusi. (Ez zizkioaten _[zizkioten] liburuak itzuli eta handik aurrera ez zitian _[zituen] gehiago ikusi)

Guk eman genozkiyongan bi zaplastako, beye meezi zittubelako! (Guk eman genizkionan _[genizkion] bi zaplastako, baina merezi zituelako)

Ezizkiyongan eskerrak eman ta damutuik yondu auben bizi guzien. (Ez zizkionan _[zizkion] eskerrak eman eta damaturik egon zunan _[zen] bizi guztian)

Muturreko galanta eman ziobabien anak kalien jarri bezain laxter. (Muturreko galanta eman zioaten _[zioten] hankak kalean jarri bezain laster)

Nik ez nionan ortas ezee esan. (Nik ez nionan _[nion] horretaz ezer ere esan)

Aittek ez zizkiyoban aindduteko soruek eman eta ez zioan geyo itzik ein. (Aitak ez zizkioan _[zizkion] agindutako soroak eman eta ez zioan _[zion] gehiago hitzik egin)

Ez zioban barkamenik eskatu. (Ez zioan _[zion] barkamenik eskatu)

Begiyek beztuik ikus genozkiyoban. (Begiak belzturik ikusi genizkioan _[genizkion])

79 Yrizarrek bokal irekia geminaturik jaso zuen kasu honetan eta besteetan ere.

80 Yrizarrek *niotzaban*/*niotzanan* ere bai.

81 *Ziotzabaan*/*ziotzanaan* ere bai Yrizarrek.

82 Horrela bokal irekia geminaturik eta *giñobaan*/*giñonaan* ere bai Yrizarrek.

83 *Giñozkiyoban*/*giñozkiyongan* eta *giñotzaban*/*giñotzanan* Yrizarrek.

84 *Ziotzababien*/*ziotzanabien* ere bai Yrizarrek.

Azkeniako ez nizkiyonan burue etor zazkiten guziek esan, geñakuen... (Azkenerako ez nizkionan ^[nizkion] burura etorri zitzaizkidan guztiak esan, gainerakoan...)

Libuu berriye yaman nioban atzo goizien. (Liburu berria eraman nioan ^[nion] atzo goizean)

Atzo eguerdiyen lore gorri betzuk ekar zizkiyonabien guu amai. (Atzo eguerdian lore gorri batzuk ekarri zizkionaten ^[zizkioten] gure amari)

20. taula. Alokutiboa, nor - nori (haiei) - nork, lehen.⁸⁵

Nork	Hura	Batua	Haiek	Batua
<i>nik</i>	<i>niobabien</i> <i>nionabien</i>	nieran nienan	<i>nizkiyobabien</i> <i>nizkiyonabien</i>	nizkiean nizkieran
<i>bark</i>	<i>ziobabien</i> ⁸⁶ <i>zionabien</i>	zieran zienenan	<i>zizkiyobabien</i> ⁸⁷ <i>zizkiyonabien</i>	zizkiean zizkieran
<i>guk</i>	<i>genobabien</i> <i>genonabien</i>	genieran genienan	<i>genozkiyobabien</i> <i>genozkiyonabien</i>	genizkiean genizkieran
<i>haiek</i>	<i>ziobabien</i> ⁸⁸ <i>zionabien</i>	zietean zietenan	<i>zizkiyobabien</i> ⁸⁹ <i>zizkiyonabien</i>	zizkietean/ zizkietenan

Bordako beyai atzo bota genobabien belarra ganbelan. (Bordako behiei atzo bota genieran ^[genien] belarra ganbelan)

Egoera ez dek batere erreza, beye sarrerak ez zizkiyobabien garais eman. (Egoera ez duk ^[da] batere erraza, baina sarrerak ez zizkietean ^[zizkieten] garaiz eman)

Nik ein nizkiyonabien bersuek jaialdieko. (Nik egin nizkieran ^[nizkien] bertsoak jaialdierako)

Arrek airi ikus zionabien kotxie. (Hark haiei ikusi zienen ^[zien] kotxea)

Aik airi ikus zionabien kotxie. (Haiek haiei ikusi zietenan ^[zieten] kotxea)

Arrek airi ikus zizkiyonabien kotxiek. (Hark haiei ikusi zizkieran ^[zizkien] kotxeak)

Aik airi ikus zizkiyonabien kotxiek. (Haiek haiei ikusi zizkietenan ^[zizkieten] kotxeak)

Aik arri ikus zionabien kotxie. (Haiek hari ikusi ziotenan ^[zioten] kotxea)

Aik arri ikus zizkiyonabien kotxiek. (Haiek hari ikusi zizkietenan ^[zizkioten] kotxeak)

85 Sinkretismoa suertatzen da nork hirugarren pertsona denean.

86 Yrizarrek nori hirugarren pertsona singularraren kasuan bezala, *ziobaan/zionaana* jaso zuen.

87 Aurrekoan bezala, baina pluralgilearekin Yrizarrek: *zizkiyobaan/zizkiyonaana*.

88 *Ziyobaabien/ziyonaabien* jaso zuen Yrizarrek.

89 Horrela, baina bokal irekia geminatua Yrizarrek.

4.1.4.7. Hitanoa

21. taula. Hitanoa nor-nori {1.pertsona} - nork, lehen.

	Niri	Batua	Guri	Batua
<i>hik-hura</i>	<i>nieban</i> ⁹⁰ <i>nienan</i>	hidan	<i>genieban</i> ⁹² <i>genienan</i>	higun
<i>hik-haiek</i>	<i>nizkieban</i> ⁹¹ <i>nizkienan</i>	hizkidan	<i>genizkieban</i> ⁹³ <i>genizkienan</i>	hizkigun

Ik ekar nizkienan poza ta osasune agetaa botaik nengonien. (Hik_[zuk] ekarri hizkidan_[zenizkidan] poza eta osasuna hagetara botarik nengoenean)

Ik eman genieban bizitzeko poza. (Hik_[zuk] eman higun_[zenigun] bizitzeko poza)

Neskatoa! Ik ekar genizkienan bier genittuben arnasaldiyek geizki geundenien. (Neskatoa! Hik_[zuk] ekarri hizkigun_[zenizkigun] behar genituen arnasaldiak gaizki geundenen)

Goguatzen yeiz ik eman niebala bizikleture Pirineota fateko? (Gogoratzen haiz_[zara] hik_[zuk] eman hidala_[zenidala] bizikleta hura Pirinioetara joateko?)

Ik yamaten nizkieban aurrek eskolaa fan zan urtien. (Hik_[zuk] eramaten hizkidan_[zenizkidan] haurrak eskolara joan zen urtean)

Ik yaman nienan azkenien txakurre albatteyangana. (Hik_[zuk] eraman hidan_[zenidan] azkenen txakurra albaitariarengana)

4.1.4.8. Alokutiboa

22. taula. Alokutiboa nor-nori {1.pertsona} - nork, lehen.

	Niri	Batua	Guri	Batua
<i>hark</i> <i>(hura)</i> <i>(haiek)</i>	<i>zieban</i> <i>zienan</i> <i>zizkieban</i> <i>zizkienan</i>	<i>zidaan</i> <i>zidan</i> <i>zizkidaan</i> <i>zizkidanan</i>	<i>zieguban</i> <i>ziegunan</i> <i>zizkieguban</i> <i>zizkiegunan</i>	<i>zigan</i> <i>zigunan</i> <i>zizkigun</i> <i>zizkigunan</i>
<i>haiek</i> <i>(hura)</i> <i>(haiek)</i>	<i>ziebabien</i> ⁹⁴ <i>zienabien</i> <i>zizkiebabien</i> <i>zizkienabien</i>	<i>zidatean</i> <i>zidatenan</i> <i>zizkidean</i> <i>zizkidatenan</i>	<i>ziegubabien</i> ⁹⁵ <i>ziegunabien</i> <i>zizkiegubabien</i> <i>zizkiegunabien</i>	<i>zigutean</i> <i>zigutenan</i> <i>zizkigutean</i> <i>zizkigutenan</i>

90 Yrizarrek horrela bokal irekia geminaturik eta baita *auen*.91 *Ittuben* ere bai Yrizarrek.92 Yrizarrek *auen*.93 Yrizarrek *ittuben*.

94 Aurrekoan bezala.

95 Yrizarrek *zieguba(bie)n/zieguna(bie)n* eta *ziegubaan/ziegunaan*.

Aittek eman zizkieban bee libuu guziek nik gordetzeko. (Aitak eman zizkidaan_[zizkidan] bere liburu guztiak nik gordetzeko)
Txoriyaik suerte pixkaat ekar ziegunabien garayaiten. (Txori haiek zorte pixka bat ekarri zigutenan_[ziguten] garai haietan)
Biandu allatu giñuban, beye ez zieguban ezee esan. (Berandu etorri gintuan_[ginen], baina ez ziguan_[zigun] ezer ere esan)
Ez zienan ezee esan i launek kalien alkartu giñenien. (Ez zidan_[zidan] ezer ere esan hire_[zure] lagunak kalean elkartu ginenean)
Ez ziebanien gaztietu partidue aurriatu zala ta akaberien allaatu nittuban. (Ez zidatean_[zidaten] gaztigatu partidua aurreratu zela eta akaberan ailegatu nituan_[nintzen])
Biandu izenda dee, azkenien ekar zizkiebaben etxeko giltzek. (Berandu izanda ere, azkenean ekarri zizkidean_[zizkidaten] etxeko giltzak)
Ez zizkiegubabien garais ekarri bizikletak ta bertan geldittu bierra urai giñuban. (Ez zizkigutean_[zizkiguten] garaiz ekarri bizikletak eta bertan gelditu beharra eduki genian_[genuen])
Ez zieban batee graziik ein azken ordubien esan zuzkigunak. (Ez zidaan_[zidan] batere graziarik egin azken orduan esan zizkigunak)
Joxeen andriek eman zizkiegunan gorentziyek zuendako. (Joxeren andreak eman zizkigun_[zizkigun] goraintziak zuendako)

4.2. Baldintza. Nor eran erabiltzen da gehienbat

4.2.1. Nor era

4.2.1.1. Hitanoa

23. taula. Hitanoa, baldintzaren ondorioa, nor orain eta lehen.

	Orain	Lehen	Batua
<i>hi</i>	(y)itzeke	(y)itzeken	hintzateke / hintzatekeen

Indikatiboko era arruntean esaten nuen moduan, hasierako kontsonante igurzaria hautzkoa da, baina gaur egun aipatu kontsonantea gabe gehiago entzuten da.

Ikusko bayau, yori etorko itzeke ezee esan bee. (Ikusi bahu_[bazenu] herori_[zerori] etorriko hintzateke_[zinateke] ezer ere esan gabe)
Esan bayoo, laseyoo geldittuko itzek. (Esan bahio_[bazenio], lasaiago geldituko hintzakeen_[zinatekeen])
Eyitzeke ixilik geldittuko, amak ezpalik eskatu. (Ez hintzateke_[zinateke] isilik geldituko amak ez balik_[balizu] eskatu)
Iyork eze esan bee dee, mendi puntaa itzoko (y)itzeken. (Inork ezer esan gabe ere, mendi puntara igoko hintzatekeen_[zinatekeen])
Eskatus kios fanen itzeke barkamena eskatzia? (Eskatuz gero joanen hintzateke_[zinateke] barkamena eskatzera?)
Kasoik ezpayau ein, an bierko yitzeken. (Kasorik ez bahu_[bazenu] egin, han beharko hintzatekeen_[zinatekeen])

4.2.1.2. Alokutiboa

24. taula. Alokutiboa, baldintzaren ondorioa, nor orain eta lehen.

	Orain		Lehen	
<i>ni</i>	<i>nitzekek</i> <i>nitzezen</i>	nindukek ninduken	<i>nitzekeban</i> <i>nitzezenan</i>	nindukean nindukenan
<i>hura</i>	<i>litzekek</i> <i>litzezen</i>	lukek luken	<i>litzekeban</i> <i>litzezenan</i>	zukean zukenan
<i>gu</i>	<i>giñekek</i> <i>giñezen</i>	gintuzkek gintuzken	<i>giñekeban</i> <i>giñezenan</i>	gintuzkean gintuzkenan
<i>haiak</i>	<i>liekek</i> <i>lieken</i>	lituzkek lituzken	<i>liekeban</i> <i>liekenan</i>	zituzkean zituzkenan

Ik eskatus kios, lasei asko fanen nitzekek launtzia. (Hik_[zuk] eskatuz gero, lasai asko joanen nindukek_[nintzateke] laguntzera)
Esan bayau, belexe etorko giñezenan zueki yotia. (Esan bahu_[bazenu], berehalaxe etorriko gintuzkenan_[ginatekeen] zuekin egotera)
Yosebai esan bayoo, laster asko fanen litzekeban. (Josebari esan bahio_[bazenio], laster asko joanen zukean_[zatekeen])
Elurre eiñen balau elieken mendie fanen emen dena utzita. (Elurra eginen balu ez lituzken_[lirateke] mendira joanen hemen dena utzita)
Ez balakigu gustetuko, ez giñekek emen yonen. (Ez balitzaigu gustatuko, ez gintuzkek_[ginateke] hemen egonen)

Gainerako erak (NN₁, NN_K, NN₁N_K) antzeko moduan burutzen dira, bai hitanoaren kasuan, bai alokutiboarenean, hau da, orain aldi -k/-n morfemak erantsiz adizkiari eta lehen aldi -ban/-nan: *yakiguke/yakigukeen* (hakiguke/hakigukeen), *nakiyokek/nakiyoken* (nintzaiokek/nintzaioken), *nakiyokeban/nakiyokenan* (nintzaiokean/nintzaiokenan), *lakitekek/n* (litzaidakek/n), *lakitekeban/nan* (zitzaidakean/nan) *lakigukek/n* (litzaigukek/n), *lakigukeban/nan* (zitzaigukean/nan), *nikek/n, nikeban/nan* (nikean/nan), *nookek/n* (niokek/n), *nokeban/an* (niokean/nan), *nozkiyokek/n* (nizkiokek/n), *nozkiyokeban/nan* (nizkiokean/nan), *likek/n, likeban/nan* (zikean/nan)...

Ez palau barkamena eskatuko, ez nakiyoken ikustia geyoo fanen. (Ez balu barkamena eskatuko, ez nintzaioken_[nintzaioke] ikustera gehiago joanen)
Ez palau barkamena eskatu, ez nakiyokeban ikustia geyoo fanen. (Ez balu barkamena eskatu, ez nintzaiokean_[nintzaiokeen] ikustera gehiago joanen)
Bier bezela etorko balakigu, aungi iruittuko lakigukek. (Behar bezala etorriko balitzaigu, ongi irudituko litzaigukek_[litzaiguke])
Bier bezela etorri balakigu, aungi iruittuko lakigukeban. (Behar bezala etorri balitzaigu, ongi irudituko zitzaigukean_[zitzaigukeen])
Besteipe ixilduko balakit, elakitekek batee gustetuko. (Besterik gabe isilduko balitzait, ez litzaidakek_[litzaidake] batere gustatuko)
Besteipe ixildu balakit, elakitekenan batee gustetuko. (Besterik gabe isildu balitzait, ez zitzaidakenan_[zitzaidakeen] batere gustatuko)

NN_i eraren kasuan, antzeko burutzapenak suertatzen dira baldintzan eta ahaleran, indikatiboan aditz era honetan -ki- erroa baliatzen duelako etxarrierak -tza- orokorren orde.

4.3. Ahalera

4.3.1. Nor

4.3.1.1. Hitanoa

25. taula. Hitanoa, ahalera, nor orain, lehen eta hipotetikoa.

	Orain		Lehen		Hipotetikoa	
<i>hi</i>	<i>etteke</i>	haiteke	<i>itteken</i> ⁹⁶	hintekeen	<i>itteke</i> ⁹⁷	hinteke

Nei den gareyen etor etteke guu aurrek ikustia. (Nahi dunan _[duzun] garaian etor haiteke _[zaitezke] gure haurrak ikustera)

Gaztie yitzenien yozin menditaa itzoo itteken. (Gaztea hintzanean _[zinenean] edozein menditara igo hintekeen _[zintezkeen])

Loteye tokatus kios, munduko beste puntaño fan itteke. (Loteria tokatuz gero, munduko beste puntaraino joan hinteke _[zintezke])

4.3.1.2. Alokutiboa

26. taula. Alokutiboa, ahalera, nor orain, lehen eta hipotetikoa.

	Orain		Lehen		Hipotetikoa	
<i>ni</i>	<i>nettekek</i> <i>netteken</i>	naitekek naiteken	<i>nettekeban</i> <i>nettekenan</i>	nintekean nintekenan	<i>nittekek</i> <i>nitteken</i>	nintekek ninteken
<i>hura</i>	<i>zettekek</i> <i>zetteken</i>	daitekek daiteken	<i>zettekeban</i> <i>zettekenan</i>	zitekean zitekenan	<i>lettekek</i> <i>letteken</i>	litekek liteken
<i>gu</i>	<i>gettezek</i> <i>gettezen</i>	gaitezkek gaitezken	<i>gettekeban</i> <i>gettezenan</i>	gintezkean gintezkenan	<i>gittezek</i> <i>gittezen</i>	gintezkek gintezken
<i>haiek</i>	<i>zettezek</i> <i>zettezen</i>	daitezkek daitezken	<i>zettekeban</i> <i>zettezenan</i>	zitezkean zitezkenan	<i>lettezek</i> <i>lettezen</i>	litezkek litezken

96 Hasieran erdiko bokalarekin ere entzun daiteke: *etteken*.

97 Sinkretismo kasua ere suertatzen da hainbatean hasieran bokal erdia erabiltzen dutenen artean, hurrengo paradigmatan ere ikusiko den moduan: *etteke* (haiteke-hinteke), *nettekek* (naitekek-nintekek)...

Ik nei dekenien etor netteken! (Hik _[zuk] nahi duanean _[duzunean] etor naiteken _[naiteke]!)
Nei debienien fan zettezken etxia, guu aldeti bintzet! (Nahi dutenean joan daitezken <sub>[dai-
tezke]</sub> etxera, gure aldetik behintzat !)
Esan baziñubie garais, errez fan gettezkeban zueki! (Esan bazenute garaiz, erraz joan
gintezkean _[gintezkean] zuekin!)
Loteye tokatzen bazikiek oporreta zueki fan nittekek! (Loteria tokatzen bazaidak <sub>[bazai]
oporretara zuekin joan ninttekek _[nintteke]!)
Bierbaa, yozin momentuten etor letteken. (Beharbada, edozein momentutan etor liteken
_[liteke])
Ez nettekeban ain ondoti pasatu akerkeiren bat aittu bee. (Ez ninttekean _[ninttekean] haien
ondotik pasatu akerkeriren bat aditu gabe)
Uste ezpezubie dee, negubontan, guaño elurraldiyek gerta zettezkek. (Uste ez baduzue
ere, negu honetan, oraindik elurraldiak gerta daitezkek _[daitezke])
Bier izenes kios nei dekenien etor gettezken launtzia. (Behar izanez gero nahi dunanean
_[duzunean] etor gaitzek _[gaitzke] laguntzera)</sub>

4.3.2. Nor-nori

4.3.2.1. Hitanoa

Gutxi dira dagoeneko aditz era honetan erabiltzen diren hitano zein alokutiboko adizkiak. Noizean behin erabiltzen direnekin esaldia idatziko dut eta gainerakoak, hauen arabera egituratutakoak dira. Bestalde, hipotetikoa orain aldiko adizkiarekin nahasten da, hasierako silabako bokal irekia mantentzearen ondorioz, beste kasu batzuetan bezala.

27. taula. Hitanoa, ahalera, nor (hi) – nori orain, lehen eta hipotetikoa.

	Orain		Lehen		Hipotetikoa	
<i>niri</i>	<i>yakiteke</i>	hakidake	<i>yakiteken</i>	henkidakeen	<i>yakiteke</i>	henkidake
<i>hari</i>	<i>yakiyoke</i>	hakiokke	<i>yakiyoken</i>	henkiokkeen	<i>yakiyoke</i>	henkiokke
<i>guri</i>	<i>yakiguke</i>	hakiguke	<i>yakiguken</i>	henkigukeen	<i>yakiguke</i>	henkiguke
<i>haiei</i>	<i>yakiyobieke</i>	hakieke	<i>yakiyobieken</i>	henkiekeen	<i>yakiyobieke</i>	henkieke

Nei dekenien etor yakiteke bisiten o denbora pasatzia. (Nahi duanean _[duzunean] etor haki-
dake/henkidake _[zakizkidake/zenkizkidake] bisitan edo denbora pasatzera)
Gaubonak pasatus kios yozin egunetan fan yakiyoke ikustia. (Gabonak pasatuz gero
edozein egunetan joan hakiokke/henkioke _[zakizkioke/zenkizkioke] ikustera)
Nei yaubenien etor yakiguken gu bisitetzia. (Nahi huenenan _[zenuenean] etor henkigukeen
_[zenkizkigukeen] gu bisitatzen)

28. taula. Hitanoa, ahalera, nor - nori (hiri), orain, lehen eta hipotetiko.

	Orain		Lehen		Hipotetiko	
<i>ni</i>	<i>nakikek</i> <i>nakiken</i>	nakiake nakinake	<i>nakikeban</i> <i>nakikenan</i>	nenkiakeen nenkinakeen	<i>nakikek</i> <i>nakiken</i>	nenkiake nenkinake
<i>hura</i>	<i>dakikek</i> <i>dakiken</i>	dakiake dakinake	<i>zakikeban</i> <i>zakikenan</i>	zekiakeen zekinakeen	<i>lakikek</i> <i>lakiken</i>	lekiake lekinake
<i>gu</i>	<i>gazkikek</i> <i>gazkiken</i>	gakizkiake gakizkinake	<i>gazkikeban</i> <i>gazkikenan</i>	genkizkiakeen genkizkinakeen	<i>gazkikek</i> <i>gazkiken</i>	gintezkek gintezken
<i>haiek</i>	<i>dazkikek</i> <i>dazkiken</i>	dakizkiake dakizkinake	<i>zazkikeban</i> <i>zazkikenan</i>	zekizkiakeen zekizkinakeen	<i>lazkikek</i> <i>lazkiken</i>	lekizkiake lekizkinake

Bier bezela eskatus kios etorko lazkikek festetan afaltzia. (Behar bezala eskatuz gero etorriko lekizkiake ^[lekizkizuke] festetan afaltzera)

Besteik ez paa eta iyork geyo nei ez izetekotan nioni fan nakikek biyer goizien launtzia. (Besterik ez bada eta inork gehiago nahi ez izatekotan neroni joan nakiake ^[nakizuke] bihar goizean laguntzera)

Buuben jartzen baakiyo, nei denien fan dakikek etxia apopilo. (Buruan jartzen bazaio, nahi duenean joan dakiake ^[dakizuke] etxera apopilo)

Yozin egunetan etor gazkiken ikustia eta bier balin baden launtzia! (Edozein egunetan etor gakizkinake ^[gakizkizuke] ikustera eta behar baldin badun ^[baduzu] laguntzera!)

4.3.2.2. Alokutiboa

Hipotetiko da erabiltzen den forma bakarra ia eta, gainera, baldintzako esaldietako ondorioko adizkiekin nahasturik.

Alokutiboko aditz formak nor-nori eran, *-k* eta *-n* morfemak erantsiz burutzen dira. Nor hirugarren pertsona denean hasierako morfema ere txandakaturaz, hots, *d-* *z-* edo *l-* bihurtuz, lehena edo hipotetiko bada:

29. taula. Alokutiboa, ahalera, nor (hirugarren pertsona) - nori, orain, lehen eta hipotetiko.

	Hura (haiek)		Hura (haiek)		Hura (haiek)	
	Orain		Lehen		Hipotetiko	
<i>niri</i>	<i>za(z)kitekek</i> <i>za(z)kiteken</i>	zaki(zki)dakek zaki(zki)daken	<i>za(z)kitekeban</i> <i>za(z)kitekenan</i>	zeki(zki)dakean zeki(zki)dakenan	<i>lakitekek</i> <i>lakiteken</i>	lekidakek lekidaken
<i>hari</i>	<i>za(z)kiyokek</i> <i>za(z)kiyoken</i>	zaki(zki)okek zaki(zki)oken	<i>za(z)kiyokeban</i> <i>za(z)kiyokenan</i>	zeki(zki)okean zeki(zki)okenan	<i>lakiyokek</i> <i>lakiyoken</i>	lekiokkek lekioken
<i>guri</i>	<i>za(z)kigukek</i> <i>za(z)kiguken</i>	zaki(zki)gukkek zaki(zki)gukken	<i>za(z)kigukeban</i> <i>za(z)kigukenan</i>	zeki(zki)gukkean zeki(zki)gukenenan	<i>lakigukek</i> ⁹⁸ <i>lakigukun</i>	lekigukkek lekigukun
<i>haiei</i>	<i>za(z)kiyobiekkek</i> <i>za(z)kiyobieken</i>	zaki(zki)ekek zaki(zki)eken	<i>za(z)kiyobiekeban</i> <i>za(z)kiyobiekenan</i>	zeki(zki)ekean zeki(zki)ekenan	<i>lakiyobiekkek</i> <i>lakiyobieken</i>	lekiekek lekieken

98 Sinkretismoa ikus daiteke baldintzaren ondorioko orain aldiko formarekin.

Yosis kios, loteye toka lakiguken, bestela zelle zikonau. (Erosiz gero, loteria toka leki-
guken ^[lekiguke], bestela zaila zeukanagu ^[daukagu])
Nei debienien etor zazkigukek ta ola bakie emanen ziegubiek. (Nahi dutenean etor zaki-
zkigukek ^[dakizkiguke] eta horrela bakea emanen zigutek ^[digute])
Bazkal aurreti fan zakiyokek bisitetzia eta ondorien guuki bazkaltzeko aukera izanen dik.
(Bazkal aurretik joan zakiok ^[dakiok] bisitatzerara eta ondoren gurekin bazkaltzeko
aukera izanen dik ^[du])
Aik fan zan astien errez asko etor zazkigukenen launtzia, beye ez ittuben etorri. (Haiek
joan zen astean erraz asko etor zekizkigukenen ^[zekizkigukenen] laguntzera, baina ez zitu-
nan ^[ziren] etorri)

<i>nakiyokek/n</i> (nakiok/n)	<i>nakiyokeban/nan</i> (nenkiok/nan)
<i>nakiyobiek/n</i> (nakiok/n)	<i>nakiyobiekban/nan</i> (nenkiok/nan)
<i>gazkiyokek/n</i> (gakizkiok/n)	<i>gazkiyokeban/nan</i> (genkiok/nan)
<i>gazkiyobiek/n</i> (gakizkiok/n)	<i>gazkiyobiekban/nan</i> (genkiok/nan)

Yozin momentuten fan nakiyokek/nikiyokek agua etortzen dazkiten guziek esatia. (Edo-
zein momentutan joan nakiok ^[nakiok] ahora etortzen zaizkidan guztiak esatera)
I, besteik ez paa, ni etor nakiyobiek/nikiyobiek launtzia. (Hi ^[zu], besterik ez bada, ni
etor nakiok ^[nakiok] laguntzera)
Nei dezubienien inguetu gazkiyobiek/gizkiyobiek, iye ze esaten debien. (Nahi du-
zuenean inguratu gakizkiok ^[gakizkiok], ea zer esaten duten)

Ikusten denez, forma ezberdinak ditugu erabilgarri etxarriaran indikatiboko nor-nori
eran gertatzen den moduan:

nakiyok/nikiyok (natzaio)
nakiyon/nikiyon (natzaion)
gazkiyok/gizkiyok (gatzaizkiok)
gazkiyon/gizkiyon (gatzaizkion)
nakiyoban/nikiyoban (nintzaioan)
nakiyonan/nikiyonan (nintzaionan)
gazkiyoban/gizkiyoban (gintzaizkioan)
gazkiyonan/gizkiyonan (gintzaizkionan)

Faten banakiyok/banakiyok, ordubentiatukuek. (Joaten banatzaio ^[banatzaio], orduan
enteratuko duk ^[da])
Aurreko urtetan meiz faten gazkiyonan/gizkiyonan bisitetzia. (Aurreko urteetan maiz
joaten gintzaizkionan ^[gintzaizkion] bisitatzerara)
Festa egunetan osabai beti inguetzen gazkiyok/gizkiyok paga jasotzia. (Festa egunetan
osabari beti inguratzen gatzaizkiok ^[gatzaizkiok] paga jasotzerara)

4.3.3. *Nor-nork era*

4.3.3.1. Hitanoa

30. taula. Hitanoa, ahalaria, nor (hirugarren pertsona) - nork orain, lehen eta hipotetiko.

	Orain hura-haiek	Batua	Lehen hura-haiek	Batua	Hipotetiko hura-haiek	Batua
<i>hik</i>	<i>dezakek</i> <i>dezaken</i> <i>dezazkek</i> <i>dezazken</i>	<i>dezakek</i> <i>dezaken</i> <i>ditzakek</i> <i>ditzaken</i>	<i>ezakeban</i> <i>ezakenan</i> <i>ezazkeban</i> <i>ezazkenan</i>	<i>hezakeen</i> <i>hitzakeen</i>	<i>lezakek</i> <i>lezaken</i> <i>lezazkek</i> <i>lezazken</i>	<i>hezake</i> <i>hitzake</i>

Taulako adizkiak begiratu, ikus daiteke -z- dela pluralgilea.

Nei denena nei denenien ein dezaken. (Nahi dunana _[duzuna] nahi dunanean _[duzunean] egin dezaken _[dezakezu])

Nei dekena nei dekenien ein dezakek. (Nahi duana _[duzuna] nahi duanean _[duzunean] egin dezakek _[dezakezu])

Nei ttunenak nei denenien ein dezazken. (Nahi ditunanak _[dituzunak] nahi dunanean _[duzunean] egin ditzaken _[ditzakezu])

Nei ttukenak nei dekenien ein dezazkek. (Nahi dituanak _[dituzunak] nahi ditunean _[dituzunean] egin ditzakek _[ditzakezu])

Ik egunio yaman ezazkeban txerrikumiek basua. (Hik _[zuk] egunero eraman hitzakeen _[zenitzakeen] txerrikumeak basora)

Akaso ik ein lezazken frituek biyerko bazkaireko? (Akaso hik _[zuk] egin hitzake _[zenitzake] fritoak biharko bazkarirako?)

Ariketoi obekina yorrek ein lezakek bierbaa. (Ariketa hori hobekien herorrek _[zerorrek] egin hezake _[zenezake] beharbada)

Ik eta ez beste iyorezek ekar dezazken laun guziek afaltzia! (Hik _[zuk] eta ez beste inork ekar ditzaken _[ditzake] lagun guztiak afaltzera!)

Jakiñe ik guatziek goizeti ein ezazkenala, beye ez ittunen sekule eitten. (Jakina hik _[zuk] ohatzeak goizetik egin hitzakeela _[zenitzakeela], baina ez hituen _[zenituen] sekula egiten)

Nei denenien ekar lezaken nobiyue etxia ezautzeko. (Nahi dunanean _[duzunean] ekar hezake _[zenezake] nobioa etxera ezagutzeko)

4.3.3.2. Alokutiboa

Kasu honetan ere, -z- da pluralgilea

31. taula. Alokutiboa, ahalera, nor (hirugarren pertsona) - nork orain, lehen eta hipotetiko.

	Orain hura-haiek	Batua	Lehen hura-haiek	Batua	Hipotetikoa hura-haiek	Batua
<i>nik</i>	zezakebat zezakenat zezazkebat zezazkenat	zezakeat zezakenat zitzakeat zitzakenat	nezakeban nezakenan nezazkeban nezazkenan	nintzakean nintzakenan nitzakean nitzakenan	nezakek nezaken nezazkek nezazken	nintzakek nintzaken nitzakek nitzaken
<i>hark</i>	zezakek zezakenn zezazkek zezazken	zezakek zezaken zitzakek zitzaken	zezakeban zezakenan zezazkeban zezazkenan	zezakean zezakenan zitzakean zitzakenan	lezakek lezaken lezazkek lezazken	lezakek lezaken litzakek litzaken
<i>guk</i>	zezakebau zezakenau zezazkebau zezazkenau	zezakeagu zezakenagu zitzakeagu zitzakenagu	genezakeban genezakenan genezazkeban genezazkenan	genezakean genezakenan genitzakean genitzakenan	genezakek genezaken genezazkek genezazken	genezakek genezaken genitzakek genitzaken
<i>haiek</i>	zezakebiek zezakebien zezazkebiek zezazkebie	zezaketek zezaketen zitzaketek zitzaketen	zezakebabien zezakenabien zezazkebabien zezazkenabien	zezaketean zezaketenan zitzaketean zitzaketenan	lezakebiek lezakebien lezazkebiek lezazkebie	lezaketek lezaleten litzaketek litzaketen

Esaten dekena, nei detenien ein zezakebat. (Esaten duana _[duzuna], nahi dudanean egin zezakeat _[dezaket])

Fan zan urtien nei zebiena ein zezakenabien, aurten ez! (Joan zen urtean nahi zutena egin zezaketenan _[zezaketen], aurten ez!)

Nik yaman zezazkenat likoriek biyerko afaire. (Nik eraman zitzakenat _[ditzaket] likoreak biharko afarira)

Nei balebie partido guziek ikus lezazkebiek arazoi pe. (Nahi balute partidu guztiak ikus litzaketek _[litzakete] arazorik gabe)

Aik nei debiena ein zezakebiek eta beste geñakuek ixiltzia! (Haiek nahi dutena egin zezaketek _[dezakete] eta beste gainerakoak isiltzera!)

Iruitzen dazkigun ardi guziek yos genezazken. (Iruitzen zaizkigun ardi guztiak eros genitzaken _[genitzake])

Bierba, iyoi baimenik eskatu bee kanta lezakek kioskuen. (Beharbada, inori baimenik eskatu gabe kanta lezakek _[dezake] kioskoan)

Ik eitten denena guk nei diaunien ein zezakenau. (Hik _[zuk] egiten dunana _[duzuna] guk nahi dugunean egin zezakenagu _[dezakegu])

4.3.4. Nor-nori-nork era

4.3.4.1. Hitanoa

32. taula. Hitanoa, ahalera, nor (hura) - nori - nork (hik) orain.

Orain								
	Niri	Batua	Hari	Batua	Guri	Batua	Haiei	Batua
<i>hik</i>	<i>diezatekek</i> <i>diezateken</i>	berdin berdin	<i>diezayokek</i> <i>diezayoken</i>	<i>diezaiokek</i> <i>diezaioken</i>	<i>diezagukek</i> <i>diezaguken</i>	berdin berdin	<i>diezayobiek</i> <i>diezayobieken</i>	<i>diezaiek</i> <i>diezaieken</i>

Objektu plurala -zki- morfema tartekatuz burutzen da, batuan bezala: *diezazkitek*, *diezazkiyobieken* (diezazkieken)...

Nei dekenien yaman diezayokek janaye guu txakurrai. (Nahi duanean ^[duzunean] eraman diezaiok ^[diezaiokezu] janaria gure txakurrari)

Ik bakarrik ekar diezaguken poz pixkaat guu etxia. (Hik ^[zuk] bakarrik ekar diezaguken ^[diezagukezu] poz pixka bat gure etxera)

Noiznei ekar diezazkiyobiek aurrek jolasteko. (Noiznahi ekar diezazkiek ^[diezazkiekezu] haurrak jolasteko)

Ik ez diezateken olakoik esan ez paden nei ni asarratzie. (Hik ^[zuk] ez diezadaken ^[diezadakezu] horrelakorik esan ez badun ^[baduzu] nahi ni hasarratzea)

4.3.4.2. Alokutiboa

33. taula. Alokutiboa, ahalera, nor-nori (hirugarren pertsona) - nork orain.

Orain				
Nork	Hari	Batua	Haiei	Batua
<i>nik</i>	<i>zieza(zki)yokebat</i> <i>zieza(zki)yokenat</i>	<i>zieza(zki)iokeat</i> <i>zieza(zki)iokenat</i>	<i>zieza(zki)yobiekebat</i> <i>zieza(zki)yobiekenat</i>	<i>zieza(zki)iekeat</i> <i>zieza(zki)iekenat</i>
<i>hark</i>	<i>zieza(zki)yokek</i> <i>zieza(zki)yoken</i>	<i>zieza(zki)iok</i> <i>zieza(zki)ioken</i>	<i>zieza(zki)yobiekek</i> <i>zieza(zki)yobieken</i>	<i>zieza(zki)iek</i> <i>zieza(zki)ieken</i>
<i>guk</i>	<i>zieza(zki)yokebau</i> <i>zieza(zki)yokenau</i>	<i>zieza(zki)iokeagu</i> <i>zieza(zki)iokenagu</i>	<i>zieza(zki)yobiekebau</i> <i>zieza(zki)yobiekenau</i>	<i>zieza(zki)iekeagu</i> <i>zieza(zki)iekenagu</i>
<i>haiek</i>	<i>zieza(zki)yokebiek</i> <i>zieza(zki)yokebien</i>	<i>zieza(zki)ioketek</i> <i>zieza(zki)ioketen</i>	<i>zieza(zki)yobiekebiek</i> <i>zieza(zki)yobiekebien</i>	<i>zieza(zki)ieketek</i> <i>zieza(zki)ieketen</i>

Nei diaunien yaman ziezayokenau kotxie garajia. (Nahi dugunean eraman ziezaiokena-
gu ^[diezaiokegu] kotxea garajera)

Nei dekenien ekar ziezazkiyobiek onttuek ta gustua janen zittubiek. (Nahi duanean <sup>[duzu-
nean]</sup> ekar diezazkiek ^[diezazkiekezu] onddoak eta gustura janen dituztek ^[dituzte])

Ik eman diezazkiyobieken informatikako eskolak jubiletubei. (Hik ^[zuk] eman diezazkieken ^[diezazkiekezu] informatikako eskolak jubilatuei)

Adurizek yozin momentuten sar diezayokek gola Madrilli. (Adurizek edozein momentu-
tan sar diezaiok ^[diezaioke] gola Madrili)

Alako opariye orrek yoziñi ein diezayoken lasei asko. (Halako oparia horrek edozeini
egin diezaioken ^[diezaioke] lasei asko)

Ardiyek mendie elduen iyendien yaman ziezazkiyobekebau osaba-izebai. (Ardiak mendira heldu den igandean erraman ziezakiekeagu_[diezazkiekegu] osaba-izebei)

Nori lehen pertsonak direnean, beste hauek ditugu etxarrierako adizkiak:

34. taula. Alokutiboa, ahalera, nor - nori (lehen pertsona) - nork orain.

Nork	Niri	Batua	Guri	Batua
<i>hark</i>	<i>ziezatekek ziezateken</i>	<i>ziezadakek ziezadaken</i>	<i>ziezagukek ziezaguken</i>	<i>ziezagukek ziezaguken</i>
<i>haiek</i>	<i>ziezatekebiek ziezatekebien</i>	<i>ziezadaketek ziezadaketen</i>	<i>ziezagukebiek ziezagukebien</i>	<i>ziezaguketek ziezaguketeten</i>

Ein duzkiten guziaki, Anttoniok ez ziezateken garraxiik ein. (Egin dizkidan guztiekin, Anttoniok ez ziezadaken_[diezadake] garrasirik egin)

Iyork ez ziezaguken olakoik esan. (Inork ez ziezaguken_[diezaguke] horrelakorik esan)

Mutikua! Ez ziezagukebiek olakoik ein! (Mutikoa! Ez ziezaguketek_[diezagukete] horrelakorik egin!)

Aik iyundi iyua ez ziezaketebien laundu egoera artan. (Haiek inondik inora ez ziezadaketeten_[diezadakete] lagundu egoera hartan)

Eta lehen aldian jartzeko, *-ba/-na-* morfemak erabiltzen dira *k/n* morfemen orde:

ziezatekeban/ziezatekenan (ziezadakean/ziezadakenan)

ziezagukeban/ziezagukenan (ziezagukean/ziezagukenan)

ziezatekebabien/ziezaketenabien (ziezadaketean/ziezadaketenan)

ziezagukebabien/ziezagukenabien (ziezaguketean/ziezagutenan)

4.3.4.3. Hitanoa

35. taula. Hitanoa, ahalera, nor (hura) - nori - nork (hik) lehen.

Lehen								
	Niri	Batua	Hari	Batua	Guri	Batua	Haiei	Batua
<i>hik</i>	<i>yezateken</i>	<i>hiezdakeen</i>	<i>yezayoken</i>	<i>hiezaiokeen</i>	<i>yezaguken</i>	<i>hiezagukeen</i>	<i>yezayobieken</i>	<i>hiezaiekeen</i>

Objektu plurala, aurrekoan bezala, *-zki-* morfema tartekatuz burutzen da, batuan bezala: *yezazkiteken* (hiezaszkidakeen), *yezazkiyobieken* (hiezaszkiekeen)...

Ik ez yezaketen nai ezee ekarri, diruik ez yakan ta. (Hik_[zuk] ez hiezadakeen_[zeniezadakeen] niri ezer ere ekarri, dirurik ez heukan_[zeneukan] eta)

Nei aiñe aitzeki eman yezayobieken, beye ez yobien bat bakarra dee eman. (Nahi adina aitzaki eman hiezaiekeen_[zeniezaiekeen], baina ez hien_[zenien] bat bakarra ere eman)

4.3.4.4. Alokutiboa

36. taula. Alokutibo, ahalera, nor (hirugarren pertsona) - nori - nork lehen.

Lehen				
Nork	Hari	Batua	Haiei	Batua
<i>nik</i>	<i>nieza(zki)yokeban</i> <i>nieza(zki)yokenan</i>	<i>nieza(zk)iokean</i> <i>nieza(zk)iokenan</i>	<i>nieza(zki)yobiekeban</i> <i>nieza(zki)yobiekenan</i>	<i>nieza(zk)iekean</i> <i>nieza(zk)iekenan</i>
<i>hark</i>	<i>zieza(zki)yokeban</i> <i>zieza(zki)yokenan</i>	<i>zieza(zk)iokean</i> <i>zieza(zk)iokenan</i>	<i>zieza(zki)yobiekeban</i> <i>zieza(zki)yobiekenan</i>	<i>zieza(zk)iekean</i> <i>zieza(zk)iekenan</i>
<i>guk</i>	<i>giñeza(zki)yokeban</i> <i>giñeza(zki)yokenan</i>	<i>genieza(zk)iokean</i> <i>genieza(zk)iokenan</i>	<i>giñeza(zki)yobiekeban</i> <i>giñeza(zki)yobiekenan</i>	<i>genieza(zk)iekean</i> <i>genieza(zk)iekenan</i>
<i>haiek</i>	<i>zieza(zki)yokebieban</i> <i>zieza(zki)yokebieran</i>	<i>zieza(zk)ioketean</i> <i>zieza(zk)ioketenan</i>	<i>zieza(zki)yobiekebieban</i> <i>zieza(zki)yobiekebieran</i>	<i>zieza(zk)ieketean</i> <i>zieza(zk)ieketenan</i>

Ikusten denez, objektu pluralarekin soilik, pluralerako *-zki-* morfema tartekatatu behar da.

Yozin momentuten eman ziezayokeban biyotzekue. (Edozein momentutan eman ziezaziokean ^[ziezaiokeen] bihotzekoa)

Nik eman niezazkiyobiekenan txurruek festetan. (Nik eman niezazkiekenan ^[niezazkieken] txurroak festetan)

Adurizek yozin momentuten sar ziezayokeban gola Madrilli. (Adurizek edozein momentutan sar ziezaiokean ^[ziezaiokeen] gola Madrili)

Osaba-izebak yaman ziezayokebieban amai odola tripotak eitteko. (Osaba-izebek eraman ziezaioketean ^[ziezaioketen] amari odola odolkiak egiteko)

Nik yaman niezazkiyokenan mangulubek, beye aztu ein nittunan. (Nik eraman niezazkiokenan ^[niezazkioken] manguluak, baina ahaztu egin nitinan ^[nituen])

Aittek eman ziezayobiekeban laseitasun pixkaat seme-alabai. (Aitak eman ziezaiokean ^[ziezaiokeen] lasaitasun pixka bat seme-alabei)

4.3.4.5. Hitanoa

37. taula. Hitanoa, ahalera, nor (hura) - nori - nork, hipotetikoa.

Hipotetikoa								
	Niri		Hari		Guri		Haiei	
<i>hik</i>	<i>yezateke</i>	<i>hie zadake</i>	<i>yezayoke</i>	<i>hie zaioke</i>	<i>yezaguke</i>	<i>hie zaguke</i>	<i>yezayobieke</i>	<i>hie zaiieke</i>

Objektu plurala, aurrekoan bezala, *-zki-* morfema tartekatuz burutzen da, batuan bezala: *yezazkiteke* (hie zazkidake), *yezazkiyobieke* (hie zazkieke)...

Bierbaa, biyer goizien ik ekar yezaguke gosaye basua. (Beharbada, bihar goizean hik ^[zuk] ekar hiezaguke ^[zeniezaguke] gosaria basora)

Nik aixe nei detela! Nei izenes kios ik yos yezateke egunio ogiye. (Nik aise nahi dudala! Nahi izanez gero hik ^[zuk] eros hiezadake ^[zeniezadake] egunero ogia)

Nei dekenien yaman yezazkiyoke zaldiyek mendie aldemenai. (Nahi duanean ^[duzunean] eraman hiezazkiok ^[diezazkiokezu] zaldiak mendira aldamenari)

4.3.4.6. Alokutiboa

38. taula. Alokutiboa, ahalera, nor (hura) - nori - nork, hipotetikoa.

Hipotetikoa				
Nork	Hari	Batua	Haiei	Batua
<i>nik</i>	<i>niezayokek niezayoken</i>	niezaiokek niezaioken	<i>niezayobiekek niezayobieken</i>	niezaiekek niezaieken
<i>hark</i>	<i>liezayokek liezayoken</i>	liezaiokek liezaioken	<i>liezayobiekek liezayobieken</i>	liezaiekek liezaieken
<i>guk</i>	<i>giñezayokek giñezayoken</i>	geniezaiokek geniezaioken	<i>giñezayobiekek giñezayobieken</i>	geniezaiekek geniezaieken
<i>haiek</i>	<i>liezayobiekek liezayobieken</i>	liezaioketek liezaioketen	<i>liezayobiekebiek liezayobiekebien</i>	liezaieketek liezaieketen

Objektu singularrarekin soilik dira hauek, pluralerako *-zki-* morfema tartekatu behar:

Nei izanen banau oporretaa nik yaman niezayoken maleta. (Nahi izanen banu oporretara nik eraman niezaioken ^[niezaioke] maleta)

Nik aitte ta ama nei izenes kios anei-arrebai yaman niezayobiekek bizitzia. (Nik aita eta ama nahi izanez gero anai-arrebei eraman niezaiekek ^[niezaieke] bizitzera)

Bierbaa aik ekar liezazkiyobiekek belar guziek airi. (Beharbada haiek ekar liezazkieketek ^[liezazkiekete] belar guztiak haiei)

Nei dekenien yaman liezayokek txakurre etxia ta biak zainduko dik. (Nahi duanean ^[duzuan] eraman liezaiokek ^[diezaiokezu] txakurra etxera eta berak zainduko dik ^[du])

Guk ekar giñezayoken neskataue eskolati ostieleru. (Guk ekar geniezaioken ^[diezaiokegu] neskatoa eskolatik ostiralero)

Bierba zuen launek yakus liezazkiyobiekebiek basurdien arrastuek aitzayai. (Beharbada zuen lagunek erakus liezazkieketen ^[liezazkiekete] basurdeen arrastoak ehiztariei)

5. ADITZ TRINKO ALOKUTIBOAK

5.1. FAN⁹⁹ (joan) aditza

5.1.1. Hitanoa: nor

39. taula. Hitanoa, joan, nor orain eta lehen.

	Orain		Lehen	
	Hura	Batua	Hura	Batua
<i>hi</i>	<i>gue</i>	hoa	<i>iyuen</i>	hindoan

99 Hauxe da bere bilakabidea: *joan* > /j/f txandaketa) *foan* > (V₁V₂ > V₂V₂) *faan* > (V₂V₂ > V₂) *fan*.

Nua gue alako prisaki iyore agurtu bee? (Nora hoa _[zoaz] halako prisarekin inor ere agurtu gabe?)
Ordubentxe iyuen i elizatayen apeza lurria bota zanien. (Orduantxe hindoan _[zindoazen] hi _[zu] eliza atarian apeza lurrera bota zenean)
Zer? Bague dauneko tabernaa meza nausia bierrien? (Zer bahoak _[bazoaz] dagoeneko tabernara meza nagusira beharreen?)
Nua iyuen atzo goizien aurpeye erabat gorrituik? (Nora hindoan _[zindoazen] atzo goizean aurpegia erabat gorriturik?)

Ahaleran, aldiz, orain aldiko adizkiak hasierako kontsonantea aldatu egiten du, hau da, herskaria beharreen igurzkaria baliatzen du:

Bayueke zakurran ipurdie! (Bahoake _[bazoazke] zakurraren ipurdira!)

5.1.2. Alokutiboa

40. taula. Alokutiboa, joan, nor orain eta lehen.

	Orain	Batua	Lehen	Batua
<i>ni</i>	<i>niyuek</i> <i>niyuen</i>	noak noan	<i>niyueban</i> <i>niyuenan</i>	nindoan nindoanan
<i>hura</i>	<i>ziyuek</i> <i>ziyuen</i>	zoak zoan	<i>ziyueban</i> <i>ziyuenan</i>	zihoan zihoanan
<i>gu</i>	<i>giyuezek</i> <i>giyuezen</i>	goazak goazan	<i>giyuezeban</i> <i>giyuezenan</i>	gindoazaan gindoazanan
<i>haiek</i>	<i>ziyueze(i)ek</i> ¹⁰⁰ <i>ziyueze(i)en</i>	zoazak zoazan	<i>ziyuezeban</i> <i>ziyuezenan</i>	zihoazaan zihoazanan

Guaixe giyuezen Anttonin tabernaa zerbeit artzia. (Oraintxe goazan _[goaz] Anttoniren tabernara zerbait hartzera)
Orduantxe ziyuezenan eskolaa, beye ez ittunen allaatu elurrangati. (Orduantxe zihoazanan _[zihoazen] eskolara, baina ez zitunan _[ziren] ailegatu elurrangatik)
Antxe ziyueban lasei asko etxe aldia eze gertatu ez balitz bezela. (Hantxe zihoaan _[zihoan] lasai asko etxe aldera ezer ere gertatu ez balitz bezala)
Baziyuek subek artuik alkatiengana txerriyek preso artu doozkiyobelako. (Bazoak _[badoa] suak harturik alkatearengana txerriak atxilo hartu dizkiotelako)
Ez ziyuezenan iyuare propio arbola geña bota zakiyobienien. (Ez zihoazanan _[zihoazen] ino-
 ra ere propio arbola gainera erori zitzaienean)
Ordubentxe niyueban etxia, beye dakiken bezela enittuban allatu. (Orduantxe nindoan _[nindoan] etxera, baina dakian _[dakizun] bezela ez ninduan _[nintzen] ailegatu)

100 Bi modutara entzun daitezke: *ziyueziek* / *ziyuezek*.

5.1.3. Nor-nori era

5.1.3.1. Hitanoa

41. taula. Hitanoa, joan, nor (hi) - nori, orain eta lehen.

	Orain			Lehen		
	Hari	Haiei	Batua	Hari	Haiei	Batua
<i>hi</i>	<i>yuekiyo</i>	<i>yuekiyobie</i>	hoakio/hoakie	<i>yuekiyon</i>	<i>yuekiyobien</i>	hindoakion/ hindoakien
	Niri	Guri	Batua	Niri	Guri	Batua
<i>hi</i>	<i>yuekit</i>	<i>yuekigu</i>	hoakit/hoakigu	<i>yuekiten</i>	<i>yuekigun</i>	hindoakidan/hindoakigun

Bayuekiyo laster etxia, bestela geizkittuko den! (Bahoakio_[zoazkio] laster etxera, bestela gaizkituko dun_[da]!)

Ze esatia yuekiyon alkatiei atzo goizien tabernan? (Zer esatera hindoakion_[zindoazkion] alkateari atzo goizean tabernan?)

Zetaa yuekigu egunio elize ataire? (Zertara hoakigu_[zoazkigu] egunero eliza atarira?)

Auriye eitten zeen aldiero yuekiyobien belarra sartzen launtzia. (Euria egiten zuen aldiero hindoakien_[zindoazkien] belarra sartzen laguntzera)

5.1.3.2. Alokutiboa

42. taula. Alokutiboa, joan, nor - nori (hari) orain eta lehen.

	Orain hari	Batua	Lehen hari	Batua
<i>ni</i>	<i>niyuekiyok</i> <i>niyuekiyon</i>	noakiok noakion	<i>niyuekiyoban</i> <i>niyuekiyonan</i>	nindoakioan nindoakionan
<i>hura</i>	<i>ziyuekiyok</i> <i>ziyuekiyon</i>	z(ih)oakiok z(ih)oakion	<i>ziyuekiyoban</i> <i>ziyuekiyonan</i>	zihoakioan zihoakionan
<i>gu</i>	<i>giyuezkuyok</i> <i>giyuezkuyon</i>	goazkiok goazkion	<i>giyuezkuyoban</i> <i>giyuezkuyonan</i>	gindoazkioan gindoazkionan
<i>haiek</i>	<i>ziyuezkuyok</i> <i>ziyuezkuyon</i>	z(ih)oazkiok z(ih)oazkion	<i>ziyuezkuyoban</i> <i>ziyuezkuyonan</i>	zihoazkioan zihoazkionan

Asteroo niyuekiyoban mendderiek aldatzia bia trebe ez zalako. (Astero nindoakioan_[min-doakion] maindireak aldatzera bera trebe ez zelako)

Aittunai, ardo pixkaateki, pensamendu triste guziek ziyuezkuyok buruti. (Aitonari, ardo pixka batekin, pentsamendu triste guztiak zihoazkiok_[doazkio] burutik)

Pazienziye urai zala, belexe giyuezkuyon eta. (Pazientzia eduki dezala, berehalaxe gindoazkion_[goazkio] eta)

Egunio ziyuekiyoban bisiten loriek besapien ziamazkiyela. (Egunero zihoakioan_[zihoakion] bisitan loreak besapean zeramatzala)

Eta nori hirugarren pertsona plurala denean, aldiz, *-bie-* morfema tartekatuz burutzen da: *yuekiyobie* orain aldian eta *yuekiyobien* iraganean HITANOAN; *niyuekiyobiek* / *niyuekiyobien* (nihoakiek / nihoakien), *niyuekiyobabien* / *niyuekiyobanien* (nindoakiean / nindoakienan), *ziyue(z)kiyobiek* / *ziyue(z)kiyobien* (zihoa(z)kiek

/ zihoa(z)kien), *ziyue(z)kiyobabien / ziyue(z)kiyonabien* (zihoa(z)kiean / zihoa(z)kie-nan), ALOKUTIBOAN.

Guaixe niyuekiyobiek etxia launtzia ezin buutus zailtziek eta. (Oraintxe nihoakiek_[noakie] etxera laguntzera ezin burutuz zabiltzak_[dabiltza] eta)
Istripube gertatu zanien ikustia ziyuekiyonabien aitte airi. (Istripua gertatu zenean ikus-tera zihoakienan_[zihoakien] aita haiei)

43. taula. Alokutiboa, joan, nor{hura} - nori{1.pertsona}, orain eta lehen.

(orain/lehen) (Nor hura eta Nori niri eta guri)				
	Orain niri	Batua	Lehen niri	Batua
<i>hura</i>	<i>ziyuekitek</i> <i>ziyuekiten</i>	z(ih)oakidak z(ih)oakidan	<i>ziyuekiteban</i> <i>ziyuekitenan</i>	zihoakidaan zihoakidan
	Orain guri	Batua	Lehen guri	Batua
<i>hura</i>	<i>ziyuekiguk</i> <i>ziyuekigun</i>	z(ih)oakiguk z(ih)oakigun	<i>ziyuekiguban</i> <i>ziyuekinan</i>	zihoakiguan zihoakigun

Nor haiek izateko tartekatu -z- pluralgilea.

Egunio ziyuekiten aittune etxia aurrek gobernatzia. (Egunero zihoakidan_[doakit] aitona etxera haurrak gobernatzera)
Iyendero ziyuekiguban ama postrie yamatia. (Igandero zihoakiguan_[zihoakigun] ama postrea eramatera)

5.2. IBILI (ibili) aditza

5.2.1. Hitanoa: nor

44. taula. Hitanoa, ibili, nor orain eta lehen.

	Orain		Lehen	
<i>hi</i>	(y)abil	habil	(y)abilen	henbilen

Ze abil gosaldu bee guaño laster amabiyek jo ber zittuk eta? (Zer habil_[zabiltza] gosaldu gabe oraudio laster hamabiak jo behar ditik_[ditu] eta?)
Orduben yabilen obekiina futbolien, andregiyaki ibiltzen yitzenien. (Orduan henbilen_[zenbiltzan] hobekien futbolean, andregaiarekin ibiltzen hintzanean_[zinenean])
Baabil, bollo billen! (Bahabil_[bazabiltza] arazo bila!)

5.2.2. Alokutiboa: nor

45. taula. Alokutiboa, ibili, nor orain eta lehen.

	NOR era (orain / lehen)			
	Orain	Batua	Lehen	Batua
<i>ni</i>	<i>naillek¹⁰¹/niillek naillen/niillen</i>	nabilek nabilen	<i>nailleban/niilleban naillenan/niillenan</i>	nenbilean nenbilenan
<i>hura</i>	<i>zaillek/ziillek zaillen/ziillen</i>	zabilek zabilen	<i>zailleban/ziilleban zaillenan/ziillenan</i>	zebilean zebilenan
<i>gu</i>	<i>gailtzek/giiltzek gailtzen/giiltzen</i>	gabiltzak gabiltzan	<i>gailtzeban/giiltzeban gailtzenan/giiltzenan</i>	genbiltzaan genbiltzanan
<i>haiek</i>	<i>zailtz(i)ek/ziiltz(i)ek zailtz(i)en/ziiltz(i)en</i>	zabiltzak zabiltzan	<i>zailtzeban/ziiltzeban zailtzenan/ziiltzenan</i>	zebiltzaan zebiltzanan

Geixkixe zailtzek / zailtziek / ziiltzek / ziiltziek zuen etxien egunio afaltzen! (Gaizkixe (ederki) zabiltzak _[dabiltsa] zuen etxean egunero afaltzen!)

Fan zan urtien primeran gailtzenan / giiltzenan erriyen. (Joan zen urtean primeran genbiltzanan _[genbiltzan] herrian)

Gaur bei gustua, beye atzo geizki niilleban / nailleban. (Gaur bai gustura, baina atzo gaizki nenbilean _[nenbilen])

Majo zailtzenan / ziiltzenan zuen beyek ibintzetan! (Ederki zebiltzanan _[zebiltzan] zuen behiak ibintzetan)

Emen gailtzek ajolipe, denbua pasa, iye atertzen deen espia. (Hemen gabiltzak _[gabiltza] axolarik gabe, denbora pasa, ea atertzen duen espera)

5.2.3. Nor-nori eran zenbait kasu erabiltzen dira soilik

5.2.3.1. Hitanoa

46. taula. Hitanoa, ibili, nor (hi) - nori orain eta lehen.

	Orain			Lehen		
	Hari	Haiei	Batua	Hari	Haiei	Batua
<i>hi</i>	<i>yabilkiyo</i>	<i>yabilkiyobie</i>	habilkio/habilkie	<i>yabilkiyon</i>	<i>yabilkiyobien</i>	henbilkion/ henbilkien
	Niri	Guri	Batua	Niri	Guri	Batua
<i>hi</i>	<i>yabilkit</i>	<i>yabilkigu</i>	habilkit/habilkigu	<i>yabilkiten</i>	<i>yabilkigun</i>	henbilkidan/henbilkigun

Neikuek mutikua! Egunio yabilkigu pelmada ematen. (Nahiko duk _[duzu] mutikoa! Egunero habilkigu _[zabilzkigu] pelmada ematen)

Egunio yabilkiyon adarra jotzen eta azkeniako buuti bia ein zuban. (Egunero henbilkion _[zenbilzkion] adarra jotzen eta azkenerako burutik behera egin zian _[zizun])

101 Kasu honetan ere bi burutzapen desberdin ditugu adizki bakoitzeko.

Nola ez nok goguatuko, beti adarra jotzen yabilkiten ta! (Nola ez nauk_[naiz] gogoratuko, beti adarra jotzen henbilkidan_[zenbilzkidan] eta!)

5.2.3.2. Alokutiboa

47. taula. Alokutiboa, ibili, nor - nori (hari) orain eta lehen.

	Orain hari	Batua	Lehen hari	Batua
<i>ni</i>	<i>nailkiyok</i> <i>nailkiyon</i>	nabilkiok nabilkion	<i>nailkiyoban</i> <i>nailkiyonan</i>	nenbilkioan nenbilkionan
<i>hura</i>	<i>zailkiyok</i> <i>zailkiyon</i>	zebilkiok zebilkion	<i>zailkiyoban</i> <i>zailkiyonan</i>	zebilkioan zebilkionan
<i>gu</i>	<i>gailzkiyok</i> <i>gailzkiyon</i>	gabizkiok gabizkion	<i>gailzkiyoban</i> <i>gailzkiyonan</i>	genbilzkioan genbilzkionan
<i>haiek</i>	<i>zailzkiyok</i> <i>zailzkiyon</i>	zebilzkiok zebilzkion	<i>zailzkiyoban</i> <i>zailzkiyonan</i>	zebilzkioan zebilzkionan

Egunio zailzkiyok txakurrek etxe inguuben iye ezurren bat lortzen debien. (Egunero zebilzkiok_[dabilzkiok] txakurrak etxe inguruan ea hezurraren bat lortzen duten)

Amiñe sukeldien sartzen zaniñe illeba guziek fuki-fuki gailzkiyonan talo puskaan baten esperuen. (Amiña sukaldean sartzen zenean iloba guztiak fuki-fuki genbilzkionan_[genbilzkion] talo puskaaren baten esperoan)

Ni nailkiyok egun guzie atzeti, beye ez ziek batee kasoik eitten. (Ni nabilkiok_[nabilkiok] egun guztia atzetik, baina ez zidak_[dik] batere kasurik egiten)

Sekule ez gailzkiyonan modu txarrien bia gixetxarra izanaatis. (Sekula ez genbilzkionan_[genbilzkion] modu txarrean bera gizatxarra izanagatik)

5.3. YON¹⁰² (egon) aditza

5.3.1. Hitanoa: nor era

48. taula. Hitanoa, egon, nor orain eta lehen.

	Orain		Lehen	
	Hura	Batua	Hura	Batua
<i>ni</i>	ago	hago	(y)engon ¹⁰³	hengoan

Ago ixilik! (Hago_[zaude] isilik!)

Ago geldiik ez peek nei nokierokoon bat jasotzie! (Hago_[zaude] geldirik ez baduk nahi «nokierokoren» bat jasotzea)

102 Hauxe da bere bilakabidea: *egon* > (herskariaren erortzea) *eon* > (erdiko bokalaren itxiera) *ion* > (bokal itxiaren kontsonantizazioa) *yon*.

103 Aurreko zenbaitetan esan dugun moduan, hasierako kontsonante igurzkaria gero eta gutxiago entzuten da kasu honetan ere.

Bisten zio_[zeundela]k atzo goizien ez engola iretan! (Bistan zagok_[dago] atzo goizean ez hengoela hireetan_[zureetan]¹⁾)
Aurreki jolasien yengola aztu yauben erlejube etxien. (Haurrekin jolasean hengoela ahaztu huen_[zenuen] erlojua etxean)

5.3.2. Alokutiboa: nor era

49. taula. Alokutiboa, egon, nor orain eta lehen.

	Orain	Batua	Lehen	Batua
<i>ni</i>	<i>niok</i> ¹⁰⁴ <i>nion</i>	nagok nagon	<i>nengoban</i> ¹⁰⁵ / <i>nioban</i> <i>nengonan/nionan</i>	nengoan nengonan
<i>hura</i>	<i>ziok</i> ¹⁰⁶ <i>zion</i>	zagok zagon	<i>zioban</i> <i>zionan</i>	zegoan zegonan
<i>gu</i>	<i>gaudek</i> ¹⁰⁷ <i>gauden</i>	gaudek gauden	<i>gaudeban</i> <i>gaudenan</i>	geundean geundenan
<i>haiek</i>	<i>ziek</i> <i>zien</i>	zaudek zauden	<i>zieban</i> <i>zienan</i>	zeudean zeudenan

Nun zien erriyontako gizonak? (Non zauden_[daude] herri honetako gizonak?)
Atzo, guaño, ez nengonan txantxetaako! (Atzo, oraino, ez nengonan_[nengoan] txantxeta-rako!)
Perlesiyek jota zio_[dago]k, gerritti bia ezin muittus! (Perlesiak jota zagok_[dago], gerritik behera ezin mugituz!)
Iguel dek eguroi ezpadook subai botatzen, irautuik zio_[da]k ta! (Igal duk_[da] egur hori ez badiok_[badiozu] suari botatzen, iragoturik zagok_[dago] eta!)
Ala zio_[daude]k Ameiket_[daude]an okelak ezin jasos, pertzekue besteik eye jaten da! (Hala zaud_[daude]ek Ameriket_[daude]an okelak ezin jasoz, pertzekoa besterik ez ditek_[dute] jaten eta!)
*Elurre elduen*¹⁰⁸, *nunbeitt, aur guziek auzomotojorik zien da!* (Elurra heldu dun_[da], nonbait, haur guztiak auzomotojorik zeuden_[daude] eta!)

Aditz honen AHALERAN aditzaren erroa aldatzen da (-GO-) pluralean alokutiboa erabiltzerakoan. Indikatiboan soilik singularrean erabiltzen da aipatu erroa (*noo*¹⁰⁹, *yoo*, *doo*) eta ez pluralean (*gaude*, *zaude*, *zaudie*, *dee*), baina ahalezkoan hauxe da erro bakarra adizki guzietan: *nook* (nagoke), *yooke* (hagoke), *dooke* (dagoke), *goozke* (gagozke), *zoozke* (zagozke), *zoozkie* (zagozkete), *doozke* (dagozke). Eta horrelaxe ere

104 nagok/n > negok/n > neok/n > niok/n.

105 Bi modutara erabitzen da: *nengoban / nioban, nengonan / nionan*.

106 zagok/n > zegok/n > zeok/n > zio_[dago]k/n.

107 zeudek/n > zeurek/n > zerek/n > zeek > zio_[dago]k/n.

108 *Eldu den* ere bai etxarriaran.

109 *nago* > *nao* > *noo*.

burutzen dira forma alokutiboak: *nookek/n* (nagokek/n), *dookek/n* (dagokek/n), *goozkek/n*¹¹⁰ (gagozkek/n), *doozkek/n*¹¹¹ (dagozkek/n).

Pozik ee bagoozkek geyo ez tanién gertatu! (Pozik ere bagagozkek_[bagaudeke] gehiago ez denean gertatu)

5.4. ETORRI aditza¹¹²

5.4.1. Hitanoa

50. taula. Hitanoa, etorri, nor orain eta lehen.

	Orain		Lehen	
	Hura	Batua	Hura	Batua
<i>hi</i>	(ator) ¹¹³ eldu yeiz	(hator) heldu haiz	eldu (y)itzen	heldu hintzen (hentorren)

*Eskerrak ba(y)atorren*¹¹⁴ *guuki, beste geñakuen galduta gaudek.* (Eskerrak bahatorren_[bazatozen] gurekin, beste gainerakoan galduta gaudek_[gaude])

Aungi zioz guuki eldu yeizela, ola e yau aztapoik uraiko. (Ongi zagok_[dago] gurekin heldu haizela_[zarela], horrela ez diagu_[dugu] oztoporik edukiko)

Neeki eldu yitzen dirube opatu giñubenien arbol arren azpiyen. (Nirekin hentorren_[zentozen] dirua opatu genuenean arbol haren azpian)

5.4.2. Alokutiboa

Aditz laguntzailearen forma alokutiboak baliatzen dira *eldu* (heldu) aditzarekin, 111. oinoharreen esan dugun moduan, ez baita orokorrean erabiltzen ‘etorri’ aditza modu sintetikoan: *eldu nok/n* (banatorrek/n), *eldu zikiyok* (bazetorkiok), ... Orokorrean ez dela erabiltzen era sintetikoan esan dut, badirelako zenbait forma trinko bizirik oraindik etxarrieran orain aldian nor eran, baina aginterako zentzuarekin: *ator* (hator), *atoz* (zatoz), *atozie* (zatozte).

110 gagozkek/n > gaozkek/n > goozkek/n.

111 Aurrekoaren bilakabide berdina.

112 Ez da etxarrieran etorri aditza era sintetikoan erabiltzen eta bere ordeztu heldu izan aditza erabiltzen da.

113 Hauxe da ‘etorri’ aditzaren ia forma trinko bakarra etxarrieran eta hauxe ere *eldu (y)yeiz* erabiltzen da normalean.

114 Horrela, ba- morfema erantsirik duela /h/ren testigantza den /y/ kontsonantea entzun daiteke zenbait hiztunen ahotan. Aginteran, aldiz, hasierako kontsonanterik gabe argi eta garbi: *Ator onutz!* (Hator hona!)

51. taula. Alokutiboa, etorri, nor orain eta lehen.

	Orain	Batua	Lehen	Batua
<i>ni</i>	<i>eldu nok</i> <i>eldu non</i>	heldu nauk-n (natorrek-n)	<i>eldu nittuban</i> <i>eldu nittunan</i>	heldu ninduan-nan (nentorreenan-nan)
<i>hura</i>	<i>eldu dek</i> <i>eldu den</i>	heldu duk-n (zatorrek-n)	<i>eldu yauben</i> <i>eldu yaunen</i>	heldu zuan-nan (zeturreenan-nan)
<i>gu</i>	<i>eldu geittuk</i> <i>eldu geittun</i>	heldu gaituk-n (gatozek-n)	<i>eldu giñuban</i> <i>eldu giñunan</i>	heldu gintuan-nan (gentozean-nan)
<i>haiek</i>	<i>eldu ttuk</i> <i>eldu ttun</i>	heldu dituk-n (zatozek-n)	<i>eldu ittuben</i> <i>eldu ittunen</i>	heldu zituan-nan (zetozean-nan)

Ago lasei, belexe eldu nok ta gio ikusko yau ze ein! (Hago ^[zaude] lasai, berehalaxe heldu nauk (natorrek) ^[heldu naiz, nator] eta gero ikusiko diagu ^[dugu] zer egin)
Loteye tokatu zakiyola esan ziobienien eldu yaunen tabernaa! (Loteria tokatu zitzaiola esan ziotenean heldu zunan (zeturreenan) ^[heldu zen, zeturreen] tabernara!)
Ordubentxe, i lania fateko muiitu yitzenien, eldu nittuban etxia! (Orduantxe, hi ^[zu] lanera joateko mugitu hintzenean ^[zinenean], heldu ninduan (nentorreen) ^[heldu nintzen, nentorreen] etxera!)
Yon ari ixilik, bidien eldu ttun guresuek ta! (Egon hadi ^[zaitez] isilik, bidean heldu ditun ^[dira] gurasoak eta!)
I, azkeniako zein eldu ittuben kotxien bideti atia zanien? (Hi ^[zu], azkenerako zein zetozean ^[zetozen] kotxean bidetik atera zenean?)

5.5. YAMAN¹¹⁵ (eraman) aditza

5.5.1. Hitanoa

52. taula. Hitanoa, eraman, nor (hirugarren pertsona) - nork orain eta lehen.

	Orain			Lehen		
	Hura	Haiek	Batua	Hura	Haiek	Batua
<i>hik</i>	<i>daamak</i> <i>daaman</i>	<i>daamazkik</i> <i>daamazkin</i>	daramak/daramatzak daraman/daramatzen	<i>yaaman</i>	<i>yaamazkiyen</i>	heraman/heramatzen

Zenbat denbora daaman etxiortan alako pena emateko? (Zenbat denbora daraman ^[darama- mazu] etxe horretan halako pena emateko?)
Zenbat urte yaaman nobiyotan ezkondu aurreti? (Zenbat urte heraman ^[zeneraman] nobioetan ezkondu aurretik?)
Egunio daamazkik ik aurrek ikastolaa. (Egunero daramatzak ^[daramatzazu] haurrak hik ^[zuk] ikastolara)
Fan zan urtien dee, ik yaamazkiyen auzoko aur guziek ikastolaa. (Joan zen urtean ere, hik ^[zuk] heramatzen ^[zeneramatzen] auzoko haur guztiak ikastolara)

115 Hauxe izan da bere bilakabidea: *eraman* > (dardarkariaren erorketa) *eaman* > (hasierako e- bokalaren itxiera) *iaman* > (hasierako bokal itxiaren kontsonantizazioa) *yaman*.

5.5.2. Alokutiboa

53. taula. Alokutiboa, eraman, nor (hura) - nork orain eta lehen.

	Orain (hura)	Batua	Lehen (hura)	Batua
<i>nik</i>	<i>ziamabet</i> ¹¹⁶ <i>ziamanet</i>	zeramaat zeramanat	<i>niamaban</i> <i>niamanan</i>	neramaan neramanan
<i>hark</i>	<i>ziamak</i> <i>ziaman</i>	zeramak zeraman	<i>ziamaban</i> <i>ziamanan</i>	zeramaan zeramanan
<i>guk</i>	<i>ziamabau</i> <i>ziamanau</i>	zeramaagu zeramanagu	<i>giamaban</i> <i>giamanan</i>	generamaan generamanan
<i>haiek</i>	<i>ziamabiek</i> ¹¹⁷ <i>ziamabien</i>	zeramatek zeramaten	<i>ziamababien</i> <i>ziamanabien</i>	zeramatean zeramatenan

Besapien ziamak beti makille norbeitti aurre eitteko. (Besapean zeramak_[darama] beti makila norbaiti aurre egiteko)

Lenuo buu geñen ziamanabien emakomiek saskiye. (Lehenago buru gainean zeramate-nan_[zeramaten] emakumeek saskia)

Len, egunio niamaban zerbeitt jateko eskolaa. (Lehen, egunero neramaan_[neraman] zer-bait jateko eskolara)

Batee lotsipe ziamabiek semien gartzelaatzie. (Batere lotsarik gabe zeramatek_[daramate] semearen kartzelaratzia)

Al deten bezela ziamanet azken urtiontan gertatuteko guzie. (Ahal dudan moduan zera-manat_[daramat] azken urte honetan gertatutako guztia)

Pluralean *-zki-* tartekatzen da eta honek aldaketa (asimilazio bustidura) sortzen du:

-be- à -ye-, -ba- à -ya-, -ne- à -ñe-, -na- à -ña-

ziamazkiyet/ñet (zeramatzaat/zeramatzanat)

niamazkiyan/ñan (neramatzaan/neramatzanan)

ziamazkiyan/ñan (zeramatzaan/zeramatzanan)

giamazkiyan/ñan (ginderamatzaan/ginderamatzanan)

ziamazkiyabien/ñabien (zeramatzatean/zeramatzatenan)

Egunio ziamazkiyet loriek kanposantue amiñandako. (Egunero zeramatzaat_[daramatzat] loreak kanposantura amiñarendako)

Amiñek ziamazkiñan beti bi lore belarri geñetan. (Amiñak zeramatzanan_[zeramatzan] beti bi lore belarri gainetan)

116 Zenbaitek *ziamabat* eta *ziamanat* ere erabiltzen ditu. Aurreko oinoharreen esandakoari jarraikiz, bilakabi-de ia berbera izan du adizki honek. Soilik ez da burutu azken urratsa, bokal itxiaren kontsonantizazioa: *zeramaat > zeamabat > ziamabat (ziamabet)*.

117 Baita *ziamabe / ziamane* ere.

Ez ziamazkiyabien bizikleta guziek eta batzuk lasterketan atia bee geldittu ittuben. (Ez zeramatzatean _[zeramatzaten] bizikleta guztiak eta batzuk lasterketan atera gabe gelditu zituan _[ziren])
Nionek niamazkiñan egunio txakurrek pasia. (Neronek neramatzan _[neramatzan] egunero txakurrak pasera)

5.6. URAI¹¹⁸ (eduki) aditza

5.6.1. Hitanoa

54. taula. Hitanoa, eduki, nor - nork orain eta lehen.

	Orain			Lehen		
	Hura	Haiek	Batua	Hura	Haiek	Batua
<i>hik</i>	<i>dakak</i> <i>dakan</i>	<i>dazkak</i> <i>dazkan</i>	daukak/dauzkak daukan/dauzkan	<i>yakan</i>	<i>yazkan</i>	heukan/heuzkan
	Ni	Gu	Batua	Ni	Gu	Batua
<i>hik</i>	<i>nakak</i> <i>nakan</i>	<i>gazkak</i> <i>gazkan</i>	naukak/gauzkak naukan/gauzkan	<i>nakaban</i> <i>nakanan</i>	<i>gazkaban</i> <i>gazkanan</i>	nindukaan/ginduzkaan nindukanan/ginduzkanan

Ez takak lotsaik ! Beti i atzeti ibil ber beste eittekoipe! (Ez daukak _[daukazu] lotsarik ! Beti hire _[zure] atzetik ibili behar beste egitekorik gabe!)

Or dazkan ume guziek espia, iye noiz ematen doobieken balona! (Hor dauzkan _[daukazu] ume guztiak espera, ea noiz ematen diean _[diezun] baloia!)

Bayakan gogue, e, gaurko egune allatzeko! (Baheukan _[bazeneukan] gogoa, eh, gaueko eguna ailegatzeko!)

Nun yazkan estaliik fan zan urteko txatarrak? (Non heuzkan _[zeneuzkan] estalirik joan zen urteko txatarrak?)

Ez takan arrazoirik asarratzeko ez guuki, ez beste iyoreki. (Ez daukan _[daukazu] arrazoirik haserretzeko ez gurekin, ez beste inorekin)

Ni erabat aspertuik nakak eta kuadrillen gaudenien denok potrotaño gazkak. (Ni erabat aspertuik naukak _[naukazu] eta koadrilan gaudenean denok potroetaraino gauzkak _[gauzkazu])

Guai dala urte pariat ez yakan barkamenik, erabat asarratuik nakanan. (Orain dela urte pare bat ez heukan _[zeneukan] barkamenik, erabat haserreturik nindukanan _[nindukezun])

Garayaiten lepaezurriaño gazkaban i tontakeyeki. (Garai haietan lepahezurreraino ginduzkaan _[gintuzn] hire _[zure] tontokeriekin)

Ago ixilik, dauneko erabat igundduik nakan ta! (Hago _[zaude] isilik, dagoeneko erabat iguindurik naukan _[naukazu] eta!)

Gozue yakan aittaiarriba meza nausie agertu ez yitzelako! (Gozoa heukan _[zenuen] aitaginarriba meza nagusira agertu ez hintzelako _[zinelako]!)

118 Ondorengoa da bere bilakabidea: *edugi* > *erugi* (d/r txandaketa) > *uregi* (metatesia) > *urei* (herskariaren galera) > *urai* (diptongo irekiera).

5.6.2. Alokutiboa

55. taula. Alokutiboa, eduki, nor (hirugarren pertsona) - nork orain eta lehen.

	Orain	Batua	Lehen	Batua
<i>nik</i>	<i>zi(z)kob¹¹⁹/zi(z)kobat</i> <i>zi(z)konet/zi(z)konat</i>	zeu(z)kaat zeu(z)kanat	<i>ni(z)koban</i> <i>ni(z)konan</i>	neu(z)kaan neu(z)kanan
<i>hark</i>	<i>zi(z)kok</i> <i>zi(z)kon</i>	zeu(z)kak zeu(z)kan	<i>zi(z)koban</i> <i>zi(z)konan</i>	zeu(z)kaan zeu(z)kanan
<i>guk</i>	<i>zi(z)kobau</i> <i>zi(z)konau</i>	zeu(z)kaagu zeu(z)kanagu	<i>giñu(z)keban</i> ¹²⁰ <i>giñu(z)kenan</i> <i>giñu(z)kiyen</i> <i>giñu(z)kiñen</i>	geneu(z)kaan geneu(z)kanan
<i>haiek</i>	<i>zi(z)kobiet</i> <i>zi(z)kobien</i>	zeu(z)katek zeu(z)katen	<i>zi(z)kobabien</i> <i>zi(z)konabien</i>	zeu(z)katean zeu(z)katenan

Bazikonet gogue etxia allatzeko. (Bazeukanat _[daukat] gogoia etxera ailegatzeko)

Ez zikobabien ezee eittekoik. (Ez zeukatean _[zeukaten] ezer ere egitekorik)

Etxien gordetuik nikoban eskopeta. (Etxean gordeturik neukaan _[neukan] eskupeta)

Ez zizkonau goguek eta ez geittun fanen basua. (Ez zeuzkanagu _[dauzkagu] gogoak eta ez gaitun _[gara] joanen basora)

Ortxe zizkok gordetuik ziderrezko txanpon pillaat. (Hortxe zauzkak _[dauzka] gordeturik zilarrezko txanpon pila bat)

Ebaya erabat geiztotuik zikobet, mateye dayola! (Ebakia erabat gaiztoturik zeukaat _[daukat] materia dariola!)

Eyeiz be gelan sartuko biak ez badau nei, matille zikok ta! (Ez haiz _[zara] bere gelan sartuko berak ez badu nahi, maratila zeukak _[dauka] eta!)

Bazizkobet goguek festak pasatzeko, egunio kinkifut eitten yau ta! (Bazeuzkaat _[dauzkat] gogoak festak pasatzeko, egunero kinkifut egiten diagu _[dugu] eta!)

5.7. JAKIN aditza

5.7.1. Hitanoa

56. taula. Hitanoa, jakin, nor - nork orain eta lehen.

	Orain			Lehen		
	Hura	Haiek	Batua	Hura	Haiek	Batua
<i>hik</i>	<i>dakik</i> <i>dakin</i>	<i>dazkik</i> <i>dazkin</i>	dakik/dakizkik dakín/dakizkin	<i>yakiyen</i> <i>yakiñen</i>	<i>yazkiyen</i> <i>yazkiñen</i>	hekien/hekizkien

119 Bi modutara entzun daiteke.

120 Bi modutara entzun daiteke.

Nik eztikiet, beye ik ederki asko dakik! (Nik ez zakiat _[dakit], baina hik _[zuk] ederki asko dakik _[dakizu]!)

Ik bayakiyen biandu etorko zala eta guk, beix, ez giñekiñan! (Hik _[zuk] bahekien _[bazenekien] berandu etorriko zela eta guk, berriz, ez genekinan _[genekien]!)

Lenuo aungi yazkiyen etxiortako kontubek! (Lehenago ongi hekizkien _[zenekizkien] etxe horretako kontuak)

Fan zan urtien ez yakiyen inglesa batere ta guai neiko aungi konpontzen yeiz. (Joan zen urtean ez hekien _[zenekien] ingelesa batere eta orain nahiko ongi konpontzen haiz _[zara])

Nola demontre dazkin gerra garaiko aunbeste kontu? (Nola demontre dakizkin _[dakizkizu] gerra garaiko hainbeste kontu?)

Bayakiñen ez zala asteleniaño etorko? (Bahekien _[bazenekien] ez zela asteleheneraino etorriko?)

Guaño ez tazkik seme-alaban urtebetetziek. (Oraindik ez dakizkik _[dakizkizu] seme-alaben urtebetetzeak)

5.7.2. Alokutiboa

57. taula. Alokutiboa, jakin, nor (hirugarren pertsona) - nork orain eta lehen.

	Orain	Batua	Lehen	Batua
<i>nik</i>	<i>zi(z)kiyet</i> <i>zi(z)kiñet</i>	zeki(zki)at zeki(zki)nat	<i>ni(z)kiyan</i> <i>ni(z)kiñan</i>	neki(zki)an neki(zki)nan
<i>hark</i>	<i>zi(z)kik</i> <i>zi(z)kin</i>	zeki(zki)k zeki(zki)n	<i>zi(z)kiyan</i> <i>zi(z)kiñan</i>	zeki(zki)an zeki(zki)nan
<i>guk</i>	<i>zi(z)kiyau</i> <i>zi(z)kiñau</i>	zeki(zki)agu zeki(zki)nagu	<i>giñe(z)kiyan</i> <i>giñe(z)kiñan</i>	geneki(zki)an geneki(zki)nan
<i>haiek</i>	<i>zi(z)kibiek</i> <i>zi(z)kibien</i>	zeki(zki)tek zeki(zki)ten	<i>zi(z)kiyabien</i> <i>zi(z)kiñabien</i>	zeki(zki)tean zeki(zki)tenan

Bazikiyet nola lortu oin etxien afaltzie. (Bazakiat _[badakit] nola lortu horien etxean afaltzea) Ez zikiñabien ze ein. (Ez zekitenan _[zekiten] zer egin)

Ekar ber zittubien pelikule guzien izenak zizkiyabien. (Ekarri behar zituzten pelikula guztien izenak zekizkitean _[zekizkiten])

Zuek goitti bia dena kontatu artio nik ez nikiñan ezere. (Zuek goitik behera dena kontatu arteo nik ez nekinan _[nekien] ezer ere)

Ibilli ta buelta, urte guzie pensatzen yamaten yau ta guaño ez zikiyau ze ein. (Ibili eta buelta, urte guztia pensatzen eramaten diagu _[dugu] eta oraindik ez zakiagu _[dakigu] zer egin)

Ez giñekiñan festak bertan bia utziko zittubiela bonbure lertu zanien. (Ez genekinan _[genekien] festak bertan behera utziko zituztela bonba hura lehertu zenean)

Dauneko aztuik zizkobau erriko kontu zarrak, ezikiyau batee. (Dagoeneko ahazturik ditugu _[ditugu] herriko kontu zaharrak, ez zakiagu _[dakigu] batere)

5.8. IRUITTU¹²¹ (iruditu) aditza

5.8.1. Hitanoa

58. taula. Hitanoa, iruditu, nor - nork orain eta lehen.

	Orain		Lehen	
	Hura	Batua	Hura	Batua
<i>hik</i>	<i>diruik</i> <i>diruin</i>	dirudik dirudin	<i>iruiyen</i>	hirudien

Ez ayela ola atia, yozin gauze diruik ta! (Ez hadi _[zaitez] horrela atera, edozein gauza dirudik _[dirudi] eta!)

Atzo meikubangana fan yitzenien, nekatuik iruiyen. (Atzo medikuarengana joan hintzeanean _[zinenean], nekaturik hirudien _[zenirudien])

Ez diruin erabat konbenzittuik, aittek esan duunenaki. (Ez dirudin _[dirudizu] erabat konbenziturik aitak esan dinanarekin _[dizunarekin])

5.8.2. Alokutiboa

59. taula. Alokutiboa, iruditu, nor (hura) - nork orain eta lehen.

	Nor (hura) - nork			
	Orain	Batua	Lehen	Batua
<i>nik</i>	<i>ziruiyet</i> <i>ziruiñet</i>	zirudiat zirudin	<i>niruiyan</i> <i>niruiñan</i>	nirudian nirudinan
<i>bark</i>	<i>ziruik</i> <i>ziruin</i>	zirudik zirudin	<i>ziruiyan</i> <i>ziruiñan</i>	zirudian zirudinan
<i>guk</i>	<i>ziruiyau</i> <i>ziruiñau</i>	zirudiagu zirudinagu	<i>gñiruiyan</i> <i>gñiruiñan</i>	genirudian genirudinan
<i>haiek</i>	<i>ziruiye</i> <i>ziruiñe</i>	ziruditek ziruditen	<i>ziruiyabien</i> <i>ziruiñabien</i>	ziruditean ziruditenan

Yozin gauze ziruiñe soñeko zarroiki! (Edozein gauza ziruditen _[dirudite] soineko zahar horiekin!)

Baziruiyan Napoleon, eskube atorrien sartuta zakala! (Bazirudian _[bazirudien] Napoleon, eskua atorran sartuta zeukala!)

Tratatzen ttuben moduben, baziruik ez teela sekule emakomiat ikusi! (Tratatzen dituen moduan, bazirudik _[badirudi] ez duela sekula emakume bat ikusi!)

Ikus ber yauben nola agertu nitzen elizen. Baniruiyan Jito Antonio bigote aundiyarreki! (Ikusi behar huen _[zenuen] nola agertu nintzen elizan. Banirudian _[banirudien] Ijito Antonio bibote handi harekin!)

121 Hauxe izan daiteke bere bilakabidea: *iruditu* > (d/r txandaketa) *iruritu* > (dardarkariaren erortzea) *iruitu* > (hortzetako kontsonantearen palatalizazioa) *iruittu*.

Zuen aldemenekuek kalfarroiki baziruin yozin gauze! (Zuen aldameneko horrek kalfar horiekin bazirudin _[badirudi] edozein gauza!)
Etxarriko jokalayek profesionalak ziruiyabien atzoko partiduen! (Etxarriko jokalariek profesionalak ziruditean _[ziruditen] atzoko partiduan!)

6. AZKEN BURUKOAK

Oso erabiliak dira egun oraindik *TO* eta *NO* aditz forma alokutibo hauek, gizonezkoari eta emakumezkoari, hurrenez hurren, zerbait ematen zaiela adierazteko etxarriean, gainerako hizkeretan bezala.

Lehenengoak *har ezak* adierazten du eta bigarrenak *har ezan*. Eta zentzu figuratuan edo harridura adierazteko ere, interjekzio moduan beraz¹²², erabiltzen da egun oraindik, espero ez dugun zerbait entzun edo gertatu dela jakitean:

To! Aittu dook! Iye guai ze esaten dooken! (To! Aditu diok _[diozu]! Ea orain zer esaten dioan _[dion]!)

TORI (hartu!) da bere ordaina zutanoko erabilera neutroan eta hauxe beste bi adizki gehiagorekin osatuta ageri zaigu behin eta berriz: *TORIZU* (har ezazu!) eta *TORIZUBIE* (har ezazue!). Azken bi hauek maiz entzun daitezke kontsonante dardarkaria eroririk: *toizu, toizubie*.

Mirentxu! No bi bost duroko ta yos zazkin txuleta pariat. (Mirentxu! No _[tori(zu)] bi bost duroko eta eros itzan _[itzazu] txuleta pare bat)
Joxe! To ollendau ta presta zak gaubiako patataki. (Joxe! To _[tori(zu)] oilanda hau eta presta ezak _[ezazu] gauerako patatekin)
Tori bi pezta zinia fateko. (Tori bi pezeta zinemara joateko)
To(r)izu zaku zarrau ez bustitzeko. (Torizu zaku zahar hau ez bustitzeko)
To(r)izubie zigerruana ta eman zazubie bakie. (Torizue zigarro bana eta eman ezazue bakea)

Baina erabilera testimonial honetatik aparte, ez da ia berrogeita hamar-hirurogei urtetik beherakoen artean erabiltzen hitano-alokutiboa Etxarri Aranatzan eta erabiltzekotan nahiko modu traketsan horretara ausartzen diren gizonezko gazte batzuen aldetik. Aditz forma batzuk baino ez dituzte erabiltzen eta, askotan, erabilera neutroarekin nahasturik diskurtso beran, eta berdin adina bikoizten dien batekin ari baldin badira solasaldian ere.

122 Horrela jaso zuen Txillardegik ere *Euskal Gramatika*-n (1978).

Bestalde, oso bizirik dugu alokutiboa etxarriera baliatzen duten hirurogei urtetik gorako artean egun oraindik, dagoeneko oso-osorik erabiltzen ez bada ere. Horrela jaso genuen *Sakana erdialdeko euskara* liburuan (2001, 284): «Etxarriko berriematek esan digutenez, *noketan* lagun artean eta gazteagoko jendearekin baino ezin daiteke erabili. Inoiz ez zaharragokoarekin, ez eta senar-emazteen artean ere. Nobiotan bai, noketan aritzen omen ziren, baina behin ezkonduz gero, *zuketan*. Haurrei ere, kozkortu arte zuketan egiten omen zitzairen, ezagutu berriei bezala. Eta azkenik, esaten digute, garai batean, apeza, mediku, maistru eta halakoei *beorretan* (berorika) hitzegiten zitzaie».

Orduko haiek gehiago zehatz ditzakegu oraingoan eta, hasteko, esan behar da erabilerari dagokionez, bi mota bereizi behar ditugula: erabilera soziologikoa eta erabilera arautua edo gramatikala. Erreparaturik lehenengoari, erabilera soziologikoari hots, erabiltzaileen sexua da lehen bereizgarri garrantzitsua hitano-alokutiboaren erabileran etxarrieran. Duela hogeita hamar-berrogei urte barra-barra entzun ziezaikeen *noketan* hitz eginez emakumezkoei haien artean edo gizonei emakumeekin eta *toketan* emakumei gizonekin edo gizonezkoei haien artean. Egun asko aldatu da egoera. Emakumezko gazteek ez dute elkarrekin *noketan* hitz egiten eta soilik adin handikoek (hirurogeita hamar urtetik gora) baliatzen dute, haien artean eta gizonezkoekin, aditz era hau. Gizonezko gazte zenbaitek erabiltzen du lagunartean, nahiko modu testimonialean baino ez bada ere. Eta, aldiz, erabat zabaldua dago hirurogei urtetik gorako artean. Eta ezberdintasun honen arrazoia, familia barneko erabileran dagoela uste dut. Haurrei, hamarren bat urte bete artean, guztiei egiten zaie *zuketan* eta hortik aurrera, egitekotan, mutikoekin baino ez da *hiketan* egiten. Bestalde, norberak bere buruari, *hiketan* egiten diola esaten dute hitanoa erabiltzen duten ia guztiek. Orokorrean, 2001ean genioen bezala, lagunartean eta ezagun gazteagoekin erabiltzen da gehienbat etxarrieran alokutiboa. Eta orokorrean diot, ezen izan baitira araubide hauxe betetzen ez duten adibideak, hala nola adineko zenbaitek askoz gazteago diren herritar zenbaiti *zuketan* egitearena, azken hauen anaia zaharragokoei *hiketan* egiten dieten bitartean. Dena den, erabilera irizpideak ezberdinak dira Euskal Herrian zehar.

Bestalde, bere erabilera arautuari edo gramatikalari erreparatzen badiogu, ez da erabiltzen mendeko perpausetan, baldintzazko zenbait kasutan izan ezik, baina bai erabiltzen da, aldiz, galderazko eta harridurazko esaldietan. Ondorengo adibideak lehenago aipatu liburuan eta orrialdean jaso genituen, dagoeneko zenduak ditugun Axintxo eta Miguel Ulaiar Arin anaia etxarriarrek duela berrogeita hamarren bat urte haien artean izandako elkarrizketa batetik hartuak Andres Garmendia etxarriarrak:

– *Tia, ik ikuskuek begi beteki nik biiki ikusten ez tetena!* (-Tira, hik _[zuk] ikusiko duk _[duzu] begi batekin nik birekin ikusten ez dudana!)

Mendeko perpausetan erabiliko balitz, horrela beharko zukeen esaldi horrek:

– **Tia, ik ikuskuek begi beteki nik biiki ikusten eyetena!* (... diadana!)

Bertan ageri den moduan, erlatibozko esaldiko aditza errejistro neutroan dago: *ez det + -ena > ez tetena*. Alokutiboa, berriz, *ez yet + -ena > *eyetena* (*diadana) izango litzateke.

– *Eztikik zenbat zakiyen arrek. Arrek zikiyan, arrek!* (Ez zakik _[daki] zenbat zekien hark. Hark zekian _[zekien], hark!).

Beste esaldi hau, berriz, Pedro Aiestaran etxarriarrari jaso genion aurreko mendeko azken hamarkadaren hasieran, eta bertan adizki berbera bi errejistroetan ikus dezakegu: lehenean, adizkia zehar galderaren parte izanik, errejistro neutroan (*zakiyen* ‘zekien’), eta aditz nagusia alokutiboan (*eztikik* ‘ez zakik’); bigarreanean, harridurazkoa hau ere, baina bakuna, forma alokutiboa ageri zaigu (*zikiyan* ‘zekian’).

Galderetan, gomendioa ez erabiltzea bada ere, era naturalean entzun daitezke alokutiboko adizkiak etxarrieran, bai galdetzaila bertan izanik, nola bai/ez erantzun beharrekoetan ere. Eta gauza bera gertatzen da harridurazkoekin, etxarrieran idatzitako aurreko esaldian ikus daitekeen moduan:

- *Nola zizkiyon orri?* (Nola zaizkion _[zaizkio] horri?)
- *Zein etor dek azken?* (Zein etorri duk _[da] azken?)
- *Nok ein din ori?* (Nork egin din _[du] hori?)
- *Fan ttuk?* (Joan dituk _[dira]?)
- *Agertuen¹²³ etxien?* (Agertu dun _[da] etxean?)
- *Au dek, au !* (Hau duk _[da], hau !)
- *Buube autsiko al din beingos !* (Burua hautsiko ahal din _[du] behingoz!)

7. TESTUA ETXARRIERA ALOKUTIBOAN

Ondorengo orrialdeetan Joseba Sarrionandiak (2015) Pamielan argitara eman duen liburuko zati bat etxarrierara moldatu eta era alokutiboan idatzi dut. Ikus daitekeenez adizkiak etxarrierako era alokutiboan, hizketakidea gizonetzkoa zein emakumezkoa dela kontuan harturik, paratu ditut eta, jarraian, kortxeteen artean eta tamaina txikiagoz, batuko adizki alokutiboak erreferentzia moduan. Zenbaitetan, oso gutxitan bada ere, kortxeteen artean ‘sic’ jarri dut, batuko eta etxarrierako adizkiak berberak direla adierazteko.

Egungo testu bat da. Zenbaitetik hitano-alokutiboa aspaldiko kontutako edo, gutxienez, adinean aurrera egin dugunon gauzako hartzen du eta, modu honetan, ikus daitezke egungo testuak eta gaiak ere herriko hizkera alokutiboan erabil daitezkeela.

Nei ez giñuben iye guzie lortu yau/ñau¹²⁴ _[diagu/dinagu]

Iragan urbillai beiretzie arriskutsube dek/den _[duk/dun]. Distanzi emozionala ta kritikue exkaxa dek/den _[duk/dun], protagonistek ekinien segitzen ye/ñe _[ditek/diten], ta motibuek

123 Bi modutara erabiltzen da etxarrieran: hemen bezala eta bereizirik, *agertu den*.

124 Nahi ez genuen ia guztia lortu dugu.

ez ttuk/ttun_[dituk/ditun] kaduketu. Ale dee, kritike bierreskue dek/den_[duk/dun], bestiei ta norberai. Beti denunzietu dek/den_[duk/dun] bestie: bestiena dek/den_[duk/dun] beti errube, mundu guziek dakiyenes. Zozuek beliei ipurbeltz: zozuonek zozues dee zerbeitt esatia biertuko dik/din_[sic] bee buube. Ez tik/tin_[dik/din] entenditzen, zozuonek, nola ez toon autokritikaik guu artien, ez baa erresentimendubek bulketube, au dek/den_[duk/dun] autokritikaan justo kontrakue. Kritike premiyeskue dek/den_[duk/dun] gauzek obetzeko.

Sarri gertatzen dek/den_[duk/dun] gauzek ez diela nei dan bezela atiatzen. Etxeti atia ta, basamortuben, gauzek ez ziek/zien_[zaudek/zauden] ya kontrolpien. Egillien intenziyuen, kalkuluen ta esperanzaan kontra aldrebesten ttuk/ttun_[dituk/ditun] planak. Ori jakiñe dek/den_[duk/dun] ta yoziñi gertatzen zikiyok/zikiyon_[zaiok/zaion], zerbeitt ein nei deen guziei, ta ez dek/den_[duk/dun] zertan obetsi ezeez ein izena.

Uste yet/ñiet_[diat/dinat] Miguel de Cervantesek atsoz artan adierazi nei zeena gertatu dakigula gui dee: Oñazia fan nei, ta Ganboaa aillatu. Ni bintzet antimilitariste nittuban/nittunan_[nitian/nitunan]. Guu erriye militarki okupetube zoola ematen ziyon/ziñan_[zian/zinan]: naturala iruittuko zikiyobabien/ zikiyonabien_[zitzaiean/zitzaieanan] batzui, bierbaa, beye beste batzui ez. Polizie, Guardia Zibille ta 'inkontrolatubek' deitzen zienak ziltzeban/ziltzenan_[zebiltzaan/zebiltzanan] yozin baztarretan, ta itzela yauben/yaunen (yeen/ñeen)_[zuan/zunan] gauzek aldatu nei zittubienen kontrako represiyue. Burruke armatube autodefensa bat yauben/yaunen (yeen/ñeen)_[zuan/zunan], zapalketaan aurrien duintasun apur bet yakusteko modube. Goio, Felipe ta erriko beste batzuk Iparraldien errefuxietu ittuben/ittunen_[zituan/zitunan] egun aiten, Poliziek nee adiskidiat, Patxi, preso artu ziyon/ziñan_[zian/zinan], Iruñen. Guardia Zibillek nee beste bi laun il zittuban/zittunan_[zitian/zitinan], andi gutxie, Gerniken: Alberto Garcia eta Jesús Mari Arrazola. San Faustoko nee launek tiroka il ondorien guardia zibillen buubek izendako konbersaziyuen grabaziyue entzun niyan/niñan_[nian/ninan]:

– Zorionak, e!

– Ez. Nee guardiandako. Neetako ez, aindako!

– Ez, arrayua, denondako!

– Kar, kar, kar, pozten niok/nion_[nauk/naun]. Zorionak denoi. Ori dek/den_[duk/dun] kapitan adorezube!

– Nor ai dek/den_[duk/dun] izketan? Nor ai dek/den_[duk/dun] izketan?

– Ni.

– Gauze bia ein ber yau/ñau_[diagu/dinagu] guzieki. Gora Guardia Zibille!

Auskias jarri duuzubiet transkripziyue; gaztelanias dek/den_[duk/dun] originala, jakiñe. Uste yet/ñiet_[diat/dinat] etikangati sartu nitzela ni burruke armatue. Barkatuko niezubie esaten detenak zarata eitten baduuzubie belarriten, beye nionen egiyek azaltzeko

idazten yet/ñet ^[diat/diñat], ez entzuten ttuten formulek errepiketzeko. Bortizkeris inguetuta bizi giñuban/giñunan ^[gintuan/gintunan] ta, ezee ez eittie ETAn sartzie beño bortizkei aundiyo iruitzen zikieban/zikienan ^[zitzaidaan/zitzaidan]. Esan zettekek/zetteken ^[daitekek/daiteken] biktimismuengati sartu nitzela, batee asmo eroikoik bee. Bariante izeteko, iru o lau aukera bakarrik izeten ttuk/ttun ^[dituk/ditun] biziyen; kobardie ez izeteko, egunio ziok/zion ^[zagok/zagon] modube, ta momentubartan, ETAn sartzie izendu yauben/yaunen (yeen/ñeen) ^[zuan/zunan] nerie. Goguatzen yet/ñet ^[diat/dinat] Camusen Izurritea irakurri neela sasoi artan, ta bazioban/bazionan ^[zegoan/zegonan] eleberriyen meiku bet izurritien kontra arrisketzen zana, ta, galdetu zoobienien zeengati arrisketzen zan aunbeste, espliketu ziyen/ziñan ^[zian/zinan] berandako 'duintasun' arazue zala, ez, 'eroikotasun' arazue. 'Duintasune' zer dan galdetu zoobienien, uste yet/ñet ^[diat/diñat] yantzun zeela, ez zakiyela zer dan zeazki, beye 'nee kasuben', ta meikube yauben/yaunen (yeen/ñeen) ^[zuan/zunan] izurrite lekuben, 'bazikiyet/bazikiñet' ^[zekiat/zekinat] nionen ofiziyue aik eta obekiina eittie dala'.

Uste yet/ñet ^[diat/dinat] antimilitarismuengati dee sartu nitzela burruke armatue. Ni antimilitariste neizelako, ezer baniok/banion ^[nauk/naun]. Nee ofiziyue, ogei urteki, soldadoskaa fatie yauben/yaunen (yeen/ñeen) ^[zuan/zunan], bi urtiako, eta Ejerzito española neetako izurritie bezelakue yauben/yaunen (yeen/ñeen) ^[zuan/zunan], frankismo guzie bezela. Izurritie sufritzie yauben/yaunen (yeen/ñeen) ^[zuan/zunan] gauz bet, beye ori izurritien agentie izetie yauben/yaunen (yeen/ñeen) ^[zuan/zunan]; serbizio militarra ein bierra niyan/niñan ^[nian/ninan] derrigorres bi urtes, bestela insumisiyue, beye insumisiyo mugimenduik ez yauben/yaunen (yeen/ñeen) ^[zuan/zunan], ta uste yet/ñet ^[diat/dinat] bost urteko kondenak bete bier izeten ziela gartzela militarretan.

Biktimismuengati ta antimilitarismuengati sartu nittuban/nittunan ^[minduan/nindunan] ETAA, orduben. Ideiengati de bei, beye guu ideiek oso elementalak ittuben/ittunen ^[zitian/zitunan]; esate batiako, guu erriye izeteko eskubidie diaula euskaldunok. Españolak o francesak eskandalizetzen ttuk/ttun ^[dituk/ditun], beye, ideie simple ta onargarriyokoik! Ideie bakun orreki ta beste elemental batzuki, ala nola personak iguelak gaala eskubides politiken, ekonomian neiz kulturatan. Guu burruke armatube idealismo askoki sortu yauben/yaunen (yeen/ñeen) ^[zuan/zunan], beye bates ee duintasunegati, estau errepre-sibuen aurke eitteko beste moduik ikusten ez zalako. Ezin zalakos bestela iye ezee eraginkorrik ein.

Nei debiena esanen ye/ñe ^[ditek/diten], beye, Estaubek gizartien kontra jarritako injustizian ondoriyue izendu yauben/yaunen (yeen/ñeen) ^[zuan/zunan] ETA sortzie, inddertzie ta radikalizetzie. Beste erri mugimendu batzuk dee Estauban ondoriyo ta arren kontrako resistenziye ittuben/ittunen ^[zitian/zitunan], beye burruke armatubek, o, obeki esan, burruke armatubek jasaten zeen represiyuek ematen ziohan/zionan ^[ziean/zienan] energie ta bisibilidedie beste oiri guziei.

Zapalkuntzaan ta represiyuen kontra, ekintze-represio-konzienzie-ekintze dinamike teorizetube ziyaan/ziñaan ^[zian/zinan] ekintzaileen batek, ta aztatu ziyaan/ziñaan ^[zian/zinan]. Represiyue goortzieki, konzienziaziyo biktimistaat zabaltzen yauben/yaunen (yeen/ñeen) ^[zuan/zunan], ta, mendekube ta gerra larrizien, represiyuek ekintze

gooroo eskatzen zian/zian [zian/zian], eta ekintzek represiyo ale gooroo probokatzan zian/zian [zian/zian]. Dinamike espiral ortan, laster desagertu ittuben/ittunen [zian/zian] elkarrizketa, objetibidedie, autokritike ta enparaubek.

Guk beti izendu giñuzkiyan/giñuzkiñan [genitian/genitinan] motibuek burruken jarraitzeko, motibo biktimistek, au dek/den [duk/dun], kontrayuen aktuaziyuek ematen zuuzkigun arrazoyek, neiz eta gio ta lausuo izen burruke armatuban beran elburu konkretuek. Motibuek giñuzkiyan/giñuzkiñan [genitian/genitinan] eta intenziyuek, ta guu intenziyuek onak ittuben/ittunen [zitian/zitunan], neiz eta eitten giñubenan ondoriyuek goorak eta, askotan, penagarriyuek izen.

Bortxak deslegitimetzen zeenes Estaube Euskal Erriyen, resistenziyuek legitimetzen zian/zian [zian/zian] ETA, ez bortxak. Beye Yoyesen kontrako ekintzen o Hipercor merkataritze zentruban kontrakuen, adibides, ez resistenziye, beizik eta bortxa ikusi zian/zian [zian/zian] jende askok. ETak modu tautologikuen azalduteko intenziyueki segittu zian/zian [zian/zian] funzionatzen, ekintzen benetako ondoriyuek kontuben artu bierrien. 'Albo kaltiek' deitzen ttuk/ttun [dituk/ditun] oik gaur eguneko gerretan, ta geyeikuek izeten ttuk/ttun [dituk/ditun] askotan; gurien dee, ezikusiyana eitteko beño larriyokuek. Azkenien, gio ta geyo, guu burruke armatubek eragindako kaltiek oso konkretubek ittuben/ittunen [zitian/zitunan], eta guu elburubek guztis abastraktuek ta irrutikuek. Miguel Angel Blancoona etor yauben/yaunen [zuan/zunan], ta Barajasko T4kue de bei. Bestien geiztokeye yauben/yaunen [zuan/zunan] guu aktuaziyuen arrazoye, ta guu txarkeye txuittu ber zeena. Biktimismuen ta intenziyuen fundamentalismuorrek apartatu zian/zian [zian/zian] ETA, nik uste, euskal gizartien babes ixilleti.

T.E. Lawrenceck espliketu zian/zian [zian/zian], Enziklopedia Britanikuendako gerrille konzeptubes idatzi zeen artikuluen, gerrillaat mantentzeko neikue dala %2n sostengube, erriyan ulermen jasankorra izenes kios. Eta, %90ko amarkadan bates ee, ETak ulermen pasibuoi galdu zian/zian [zian/zian].

Esan dettekela uste yet/ñiet [diat/dinat]. Oinazia fateko intenziyueki, Ganboaa bidie artu giñubela.

«Nei ez giñuben iye guzie lortu yau/ñau [diagu/dinagu]», idatzi niyan/niñan [nian/ninan] nio-nek, aspaldiyan, Hitzen ondoeza deittu zan libuu betien, Euskadiko Ezkerrako laundako.

1981eko otseillan 23ko antzerkiyan ondorien, diskurso iperdemokratiko falsuen artien, ETApm erakundiek 'damutzien' antzeslana ein zian/zian [zian/zian] eta EEko buuzei batzuk 'lema-golpe' partikularra jo ziyabien/zianabien [zian/zian] konbersuen radikaltsunaki integratzeko kasta politiko-mediatico nausien.

Nik ez niyan/niñan [nian/ninan] konprendittu 'damutzien' konzeptu kristau ure, ez bazan formule moduben erru kolektibo astun bet bizkerriatzeko resistenziyen parte artzen zeen erri osuei. Ez yauben/yaunen [zuan/zunan] burruke armatube uztie, beizik eta erasuen ai zan Estau zapaltzaillie legitimetzie alor guziten.

ETAk jende askon sostengube jarraitu zian/ziñan ^[zian/zinan] izeten. Ez aungi eitten zittubelako gauzek, irtenbidiat billetus, beizik Estaubek okerrokuek eitten zittubelakos, irtenbide guziek itxiik. Euskaldunai erri moduben antolatzeke eskubidie debekatzen zikieguban/zikiegunan ^[zitzaiguan/zitzaigunan], meatxu militarres, eta diktaduran egiturek demokrazian izenien beye antzeke ankertasunes jarraitzen ziyabien/ziñabien ^[ziate/zinaten]. Torture, esate batiako, oikue yauben/yaunen ^[zuan/zunan] komisarie ta kuarteletan, Gobernuban ta instituziyo guzien onarpen aktibo ta pasibueki. Ola, Estaubek ETA legitimetzen zian/ziñan ^[zian/zinan].

Beye guk, guu burruke armatubaki, guu intenziyuen erabat aurka, Estaube legitimezzen giñuban/giñunan ^[genian/geninan], azken betien, Estaubaki kolaboretu debien 'damutubek' bezeinbeste. Injustizian kontrako burruke bateti, iye guartu bee, ekintzen ritualtasun batia pasatu giñelakos. Ritue, bakizubie ekintze o zeremonie magikuat dala, energie zerbeitten bille bideratzeko. Ekintze ta geñu aungi arautubek errepiketzen ittuben/ittunen ^[zituan/zitunan] bein da beix, zerbeitt orren billen muitzeke indder ezkutubek, zerbeitt ori magikoki lortuko zalakuen noizbeitt. Beye, burruke armatuban ta represiyeuen ritualtasun aspergarriye, gio ta irrutiyo zioban/zionan ^[zegoan/zegonan] denondako politikaat fundetzeko posibilidedeti.

Siñistu bierrekotako artu yauben/yaunen ^[zuan/zunan] elburu konkretu batzuk lortzeke estrategie egokiye zala, iyundi iyue ikusten ez zana realidedien. Represiyo-ekintze-represiyo espirala geyei biandutu dek/den ^[duk/dun], albo-kalte geyei pilletuta, eta, geña, modu arraruen akatu dek/den ^[duk/dun], gertatutakuen analisi kritikoiye eta bake akordiyoipe.

Guaño de, eunka presueki, kontrol ta represiyo itzelaki, Estaubandako separatistetak ar detteken yozin gauzan aurkako jarrera arro erasotzaile orreki. Gaur egun de ez nitek/niken ^[sic] asko aldatuko guai dala ogei urteko esaldiye:

«Nei ez giñuben iye guzie lortu yau/ñau ^[diagu/dinagu]».

E yet/ñet ^[diat/dinat] ori akaberas bakarrik esaten, ibilbidiek yaman beigeittu ortaa. Lortu yau/ñau ^[diagu/dinagu] biolenzie iraultzaillan arabe zapuztie momentu askotan: alik eta bortizkeriye gutxina ibiltzie, ez alik eta geyen. Eta lortu yau/ñau ^[diagu/dinagu] miñe, erditze miñe izen ber zana, geyegiskue ta alperrikekue izetie. Ez yet/ñet ^[diat/dinat] ori esaten resentmentuti, errube botatzeko beste iyoi, ez persona bati, ez alderdi beti.

Beizik eta justo alderantzis: gauzek aldatzeko, okerran zama geñeti jentzeko, beste bidiatzuk bier ttugulakos. Egiye batzuk konpartittu bierra diaulakos, alkarren bierra diaunes kios bizitzeko moduko gizartiat osatzeko. Unilateralidedie, bierreskue izenda de, ez dalakos soluziye. Jendiek beste politikaat bier ta meezi deelakos.

Guk akatutako eman yau/ñau ^[diagu/dinagu] burrukoi, nekatuta geundebaan/geundenan ^[geundean/geundenan] bierba. O ez, burruke manten zettekeban/zettekenan ^[zitekean/zitekenan] luzaruen azken urtetako intensidedieki bintzet, eta autokritike baten ondoriye izendu dek/den ^[duk/dun] burruke armatuban akabera. Beye, ola, benetan akatu dek/den ^[duk/dun] gatazka?

Uste yet/ñet ^[diat/dinat] ezetz, zengati guaño baziok/zion ^[zagok/zagon] pensatzen deenik, Platonen bee Republikan 'zentzu komun' primitibuen aguen jarri zeen bezela, injustue izeteko almena deenak (dakanak) ez teela (takala) zertan makurtu justizies jokatzeko egiye eta itzarmenetaa.

Ta iritzi oixe dek/den ^[duk/dun] munduben nause guaño, zoritxarres.

(Joseba Sarrionandiaren *Lapur banden etika ala politika* liburutik hartu eta etxarrieran paratua. 37-43 orrialdeak)

BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, X., 1994, «Euskararen tratamendua: bilakaera», *Fontes Linguae Vasconum*, 67, 401-434.
- 1996, *Euskararen tratamenduak: erabilera*, «Iker», 9.
- ALVAREZ, J. L., «Txillardegi», 1978, *Euskal gramatika*, Bilbao, Ediciones vascas.
- ERDOZIA, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Iruñea, Nafarroako Gobernu.
- 2004, *Sakanako hiztegi dialektologikoa*, Iruñea, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernu.
- ETXANIZ, P., 2001, «Tratamenduen bilakaera, to eta no», *Fontes Linguae Vasconum*, 87, 225-234.
- EUSKALTZAINDIA, 1987, *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*, Bilbo.
- FONTANEDA, G., 2007, *Hikasi - Hika mintzatzeko metodoa*, AEB, Lulu.
- GAMINDE, I., 1984, *Aditz etikoa*, Bilbao, AEK.
- LIZARTZA, R., 2009, *Hitanoa mintza hadi, lagun!*, Donostia, Maramara.
- SARRIONANDIA J., 2015, *Lapur banden etika ala politika*, Iruñea, Pamiela.
- URRUXULEGI, J., 2009, *Hi! Hika ikasteko metodoa*, Andoain, Txertoa.
- YRIZAR, P., 1992, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*, Bilbo, Euskaltzaindia.

LABURPENA

Etxarrierako hitano-alokutiboa

Artikulu honetan Etxarri Aranazko euskararen erabiltzen den hikako moldearen nondik norakoak aztertzen dira. Lehen lehenik, hikako adizkiak eta alokutiboak deskribatu eta zein testuingurutan baliatzen dituzten etxarriarrek jaso da. Ondoren, sinkretismo zenbait kasu ere aipatu eta argitu dira. Eta hortik aurrera, tauletan bildurik eta horietako bakoitzaren azpian, esaldietan kokaturik, gaur egun erabiltzen diren moduan azaldu dira. Aipatu tauletan, hikako adizkiak eta alokutiboak agertzen dira, lehenik aditz laguntzailea dagokion era eta modu ezberdinetan banaturik, eta jarraian zenbait aditz trinko. Esaldi horiek, lehenik etxarrieran (hizki beltzez eta etzanez) eta ondoren, parentesi artean hizki normalez, batuan agertzen dira adizki bakoitzari dagokion forma estandarizatuarekin eta baita, kortxeteen artean eta tamaina txikiagoan, zutanoko erabilera neutrokoa ere. Azkenik, Joseba Sarrionaindiaren testu bat etxarriera alokutibora moldatuta dator.

Gako hitzak: Euskara; Etxarri Aranatz; hitano; alokutibo; hikako erabilera; erabilera neutroa.

RESUMEN

El tratamiento alocutivo en el euskera de Etxarri Aranatz

En el presente artículo se analiza de forma pormenorizada el tratamiento alocutivo del euskera de Etxarri Aranatz. Para empezar, se describen el hitano y el alocutivo, amén de la contextualización de sus respectivas formas verbales. Seguidamente, se mencionan y aclaran algunas formas de sincretismo verbal. Y, a partir de aquí, recogidas en tablas, se presentan las formas verbales contextualizadas, a pie de tabla, en frases de uso actual. Las mencionadas frases vienen en negrita y cursiva, tal y como se usan en el habla popular y después, entre parentesis y con letra normal, su forma estandarizada incluyendo tanto el tratamiento específico (hitano), como el neutro (zutano) en tamaño más pequeño y entre corchetes. Para terminar el artículo se ha adecuado un texto de Joseba Sarrionaindia al euskara de Etxarri Aranatz en su variante alocutiva.

Palabras clave: Euskera; Etxarri Aranatz; tratamiento ético; formas verbales alocutivas; formas verbales neutras.

ABSTRACT

Allocutive treatment in local dialect of Etxarri Aranatz

This article analyzes the treatment of «allocutive agreement» in Basque, in the town of Etxarri Aranatz. First, it describes the «hitano» and the «allocutive» together with their use in different contexts and some examples of syncretism. Then, illustrated in tables, are presented and examined analytic and synthetic conjugation phrases. The mentioned phrases come in bold and italics, as used in local speech, and then, in parentheses and normal font-type, the standardized form including both the «hitano» and «zutano» (the neutral verb form) in smaller font-type and in brackets. To finish the article, a text by Joseba Sarrionaindia has been adapted to the local dialect of Etxarri Aranatz in its allocutive form.

Keywords: Basque language; Etxarri Aranatz; allocutive agreement; neutral verb forms.

Lana jaso den data: 2016/09/15.

Lana onartu den data: 2016/10/31.